

...eta **kitto!**

692 zkia. 2009-X-2

ASTEKARIA

topa egiteko SAGARDO *Eibarko* EGUNA



2
betetutako
ofizialak
97%

2
konbinatu
2
mō



MULTIOPTICAS


1.A ZERBITZU OPTIKOETAN

Iturbidebidea 3 • Tel. 945 20 00 00 • EIBAR
www.multiopticasgipuzkoa.com

Entzuten ez duzun gurekin jarri harremanetan. Gurekin jarri harremanetan gurekin jarri harremanetan.

Irailetik aurrera 5 eguneko Teorikako ikastaro trinkoak

**ZEZEN
BIDE**



**AUTO
ESKOLA**




**ORDUTEGIA:
09.30-13.00
15.30-20.30**

GIDA-BAIMENAK



**San Andres, 1 ac
Tel. 943 20 34 45
EIBAR**



Iriondo

Promozioak

Santa Ana, 4-6 ELGOIBAR www.iriondodecoracion.com Tel. 943-741234

90x190 459 €
135x190 684 €
150x190 684 €

*Hankak prezioan sartu gabe

MUELLEDUN KOLTXOIA + VISCO



%100 LATEX KOLTXOIA



HR KOLTXOIA + VISCOLASTICA



**DOUBLE OFFSET
MUELLEDUN KOLTXOIA**

**BAT BURDINEZKO
SOMIER FINKOA**



NEOX EGURREZKO SOMIER FINKOA

5 urteko garantia

5 urteko garantia

RENOVE planarekin

%25_{eko}
deskontua

90x190 272 €
135x190 378 €
150x190 438 €

*Hankak prezioan sartu gabe



ARGITARATZAILEA:

...eta kitto! Euskara Elkartea

HELBIDEA:

Urkizu, 11 - solairuartera
20600 Eibar

TELEFONOAK:

943 20 67 76 / 943 20 09 18

FAXA:

943 20 28 72

Astekariaren E-MAILak:

erredakzioa@etakitto.com

komunikabideak@etakitto.com

publizitatea@etakitto.com

Elkartearen E-MAILak:

elkartea@etakitto.com

normalizazioa@etakitto.com

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:

Itziar Albizu

Jose Luis Gorostegi

Silbia Hernandez

Koldo Mitxelena

Ekhi Belar

ADMINISTRAZIOA:

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA:

Koldo Mitxelena

ERREDAKZIO-BURUA:

Silbia Hernandez

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:

Jose Luis Gorostegi

ARGAZKI ARLOA:

Leire Iturbe,

S. Hernandez eta E. Belar.

HIZKUNTZA ARDURA:

Juan Andres Argoitia

Maidar Aranberri

PUBLIZITATEA:

Itziar Albizu

Belen Ulazia

Tfnoa: 943 20 67 76

AZALA:

J.L. Gorostegi

BANAKETA-ARDURADUNA:

Ihintza Fernandez

TIRADA:

8.050 ale

INPRIMATEGLIA:

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A:

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA:

SS/430/92

ISSN: 1132 - 1679

(*...eta kitto!* ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen
eta iritzien erantzunkizunik)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskerara

EURI LANPARRA.- Euri lanbroa. " Euri lanparrakin mela-mela eginda heldu giñan etxera" .

EURI TRUXALAK.- Euri handiak. " Arratera juanda, euri truxalak hartu dittugu gaiñian" .

EUSKAL BARGETIA.- Goitik behera beharrean, albo batera irekitzen den brageta. " Prarak zittuan euskal bargetiarekin, kortako atia leztxe, alde batera zabaltzen zana" .

EUSKALGAIZTO.- Euskeraz ondo ez dakitenean berbeta modua. " Nere amak, Bitorixakua izan arren, euskal-gaizto egitten eban" .

ESKUTITZAK

— OHARRA —

Atal honetan edonork idatzi dezake, baina gutunak kaleratzeko orduan gutxieneko baldintza batzuk betetzea ezinbestekoa da. Gutun guztiak sinatuta jaso beharko ditugu, egilearen izen-abizenekin. Horrez gain, nortasun agiriaren zenbakia derrigorrezkoa zaigu. Neurriari dagokionez, ez da 20 edo 25 lerrotik gorako testurik kaleratuko. Luzera hori gainditzen duten testuak mozteko eskubidea izango dugu, hori beharrezkoa dela ikusiz gero. Tonuari dagokionez, berriz, ez da testu iraingarririk onartuko eta aldizkariak ez du bere gain hartuko bertan kaleratzen diren iritzien gaineko erantzunkizunik.

Aipatutako baldintzok bete ezean, erredakzioak gutuna ez kaleratzea erabaki lezake. Bestalde, kartak erredakziora heldu ahal jaso eta orden horretan kaleratuko ditugu. Gutunak korreoz bidali daitezke (Urkizu, 11 - solairuartera), edo e-mailez: erredakzioa@etakitto.com

ERREDAKZIOA

asteko HEMEROTEKA esaldiak

" Etxe Zurian aurrenekoz presidente demokratiko bat dago; pertsona bakar batek ezingo du herri osoa aldatu, baina aurrerantzean gaizkile gutxiago izango da Etxe Zurian, eta ez da gutxi. AEBetan us-tezko askatasunaren erakutsikeria egiten dugu, baina 2003an jende asko ikaratu zuen Gobernuak, eta Irakeko gerraren kontra zeuden guztiak isilik jarraitzen dute oraindik"

(Tim Robbins, aktore eta zuzendaria)

" Zuzenean edo zeharka, informazioaren gizarteak eta ikus-entzunezko hedabideek hartu duten pisuak eman diote bide galderarik gabeko prentsaurrekoari. Deialdia egiten duenak badaki idatziko ohar batek ez duela bideo edo audio 'korte' pare batek duten boterea eta bere hitzen lekuko elektronikoak behar ditu soilik; kazetariak, azken finean, gailuak piztu eta itzaltzeko besterik ez ditu behar."

(Joxe Rojas, teknopata)



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU
ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZA)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzako Kultur Sailak eta Kutxak diruz lagundutako aldizkaria



Josu Mendikute

Merezi duzue

Gure herriko langile talde bati iruzur egin diote. Krisia iritsi baino lehenago itxi behar izan zituzten bere negozioak talde horretako batzuek, eta segi ahal izateko inbertsioak egin bestee. Etorkizun duinago baten aldeko apostu bakarra egiten utzi zieten, euren iritzirik entzun ere egin gabe, beste batzuen interesei bakarrik jaramon eginda. Eta hor daude, etorkizuna noiz iritsiko, iraganeko bete gabeko aginduei begira. **Orainaldi hobea merezi duzue.**

Iruzur egin dizuete merkatarioi, eta iruzur egin digutela sentitu dugu baita ere herritarrok. Zuei gauza bat agindu aurretik, beste bat agindu baitziguten guztioi. Eta hori lortzeko borroka zaila eta gogorra izan da azken urte t'erdian. Iragan aginduak berreskuratzeko esperantza inoiz baino biziago ikusten dugu orain. **Espazio publikoa nahi dugu, eta merezi dugu.**

Eta zuek... zuek iruzur egin diguzuela sentitu dugu, merkatariok eta herritarrok. Engainatuak sentitu gara, baztertuak. Eta agian ez da horrela, agian Madrildik, Ingalaterrako edo Alemaniako diruarekin (batek daki) etorritako batek egin dizue iruzur. Baina, hala bada ere, galdera da... **zuek zer merezi duzue?**

autuan

EPAITEGIAREN MOLDAKETA

Datorren urterako Eibarko epaitegian moldaketak egitea aurreikusi dute, Eusko Jaurlaritzak martxan ipini nahi duen antolaketa berriaren harira. Epaitegi-idazkari plaza berrietarako deia egitearekin batera, epaitegia 2010. urtean teknologia berriekin hornitzeko asmoa azaldu dute.

ENERGIA AURREZTEN

Udalak kaleko argiztapenean dirua aurrezteko plana ipini zuen indarrean uda aurretik, energia-kontsumoan ordaindu beharrekoa jaisteko asmoarekin. Horri jarraituta, kalean horrenbeste argi behar ez den tartean (01.00ak eta 05.30ak bitartean) faretako batzuk amatatu egingo dituzte.

KONTABILITATE PLAN BERRIA

Debegesak Kontabilitate Plan Orokor Berriari buruzko ikastaroa emango du urriaren 6an eta 8an, Azitaingo industrialdeko bere egoitzan (08.30etatik 13.30etara). Plan berriarekin lotutako aldaketak eta bestelakoak landuko dira ikastaroan. Interesa dutenek 943820110 zenbakira deitu dezakete (Silvia Gil).

Osakidetzaren txartel elektronikoa berria



ASTELEHENEAN HASIKO DA ONA TXARTELAREN EDO HIRITAR-ERABILERAK BARNE HARTZEN DITUEN

Osasun Txartel Elektronikoa berriaren hedapena Eibarren. Osakidetzaren orain arteko txartelaren ordean erabil daitekeen ONA txartel honek administrazio publikoekin internet bitartez beste hainbat tramite eta ordainketa egiteko aukera eskaintzen dizkio erabiltzaileari, hala nola, udal zergak ordaintzeko, medikuarekin hi-

tzordua hartzeko zein sendagile-aldaketa eskatzeko edo gida-baimeneko puntuen inguruko informazioa jasotzeko aukera.

ONA txartela doan ematen dute eta eskuratu ahal izateko, berriz, 16 urtetik gora izatea eta oraingo osasun-identifikazio txartela eta NAN aurkeztu behar dira. Pegoran, Toribio Etxebarria zein Torrekuako osasun zentruetan eta Karmen kaleko KZ Gunean eskatu daiteke.

Gazte baserritarren martxa Akuilu taldeak antolatuta

URRIAREN 23, 24 ETA 25-ERAKO GAZTE BASERRITARREN MARTXA ANTOLATU DU AKUILU TALDEAK. Gazte nekazari zein baserritar izan nahi duten kalerari zabaldutako ibilaldia Azpeitiatik Durangora izango da eta barixakuan abiatuko da, Azpeitian ongi gorria, hamarretakoa eta kalejira egin ondoren. Zapatu eta domekarako beste ekitaldi batzuk prestatu dituzte, ibilbidea osatzen duten herrietan garatzeko. Martxaren inguruko informazioa zabaltzeko eguaztenez (hilak 7) bilera egingo da Kulturaldean, 19.30etan. Bestela baserritargazteak@gmail.com helbidera idatzi edo 646441769 telefono zenbakira deitu daiteke.



Urriaren 6rako lanak amaituta izango dira... / EKHI BELAR

Errepidea moztuta Urkizun

URKIZUKO DORREETAKO 9. ZENBAKIAN BEHARREAN HASI ZIREN AURREKO BARIXAKUAN, aldameneko alda-pa iragazgaitu, asfaltatu eta fresatzeko asmoarekin. Hori dela eta, Bittor Sarasketa kaleko haurreskola paretik Urkizura joateko errepidea ezin izango da erabili urriaren 6ra arte. Ondorioz, hor inguruan garajea zein lokala dutenek ezin izango dute automobila sartu edo atera, errepidea moztuta dagoen bitartean. Horrekin batera, Bittor Sarasketako Haurreskola parean beharrean diharduten bitartean ezin izango da automobila aparkatu.



Zoru-pelbikoa nola indartu ikasiko dute ikastaroetako batean.

Jabetze Eskolak ikastaroak antolatuko ditu

EIBARKO JABETZE ESKOLAK EMAKUMEENDAKO HIRU TAILER-IKASTARO ANTOLATU DITU DATOZEN AS-TEOTARAKO. Lehenengoa berdintasun harremanak lantzeko tailerra izango da eta Pepa Bojó Ballester psikologo-sexologoak emango du, Andretxean, azaroaren 2tik abenduaren 21era arte, astelehenetan, 18.00etatik 20.00etara. Izen-ematea zabalik dago eta joan nahi duenak Pegoran egin behar du horretarako eskaera (plazak mugatuak dira). Bigarren ikastaroan parte hartzen dutenek zoru-pelbikoa nola indartu ikasiko dute, obstetriziaz

eta ginekologian adituak diren fisioterapeuten laguntzarekin. Ikastaroa urriaren 26an hasi eta abenduaren 17an amaituko da eta 12 saio izango dira orotara (ordubete egun bakoitzean). Honetarako izen-ematea zabalik dago, urriaren 16ra arte (edo plaza guztiak bete arte). Eta hirugarren ikastaroak egun bakarrean (8 ordutan) autodefentsa ikasteko aukera emango du; abenduaren 19an izango da, Ipurua kiroldegian (09.00etatik 13.00etara eta 16.00etatik 20.00etara). Izena emateko eta informazioa eskatzeko Pegora jo behar da, azaroaren 2tik 27ra.

Jende ugari erakarri du Expoadintsuk

MARTITZENEAN ZABALDU ETA ATZO ITXI ZUTEN EXPOADINTSU NAGUSIEN AZOKAK JENDE UGARI ERAKARRI DU bere lehenengo edizioan. Antolatzaileek eta instituzioetako ordezkariak inauguratutako azokak 600 lagunetik gora batu zuen Astelena frontoian lehenengo egunean eta martxan egon den beste egun bietan ere etenbarik hartu ditu bisitariak. Azokan egon diren postuetatik gain, interes handia piztu dute hiru egun horietan eskaini diren hitzaldi, aurkezpen tailer eta aisialdiarekin lotutako ikuskizunek.



Martitzenetik atzora arte iraun du Expoadintsuren lehenengo edizioak. / EKHI BELAR

anzorik anzo



Ardantzako beharren 1. zatia amaituta

Ardantzako tren geltoki berria amaituta ikusteko hilabeteak falta dira oraindik (udarako erabiltzeko moduan izango dela dago aurreikusita), baina beharren lehenengo zatiaren emaitzak dagoeneko begibistakoak dira eta bigarren fasekoek ere aurrera dira. Geltoki berria eraikitzearekin batera, trenbide sarean ere izango da aldaketarik: 180 metrotan trenbidea bikoiztu egingo da eta, horri esker, trenak norantza bietan ibili eta gurutatzeko modua izango da. Horrela, trenen maiztasuna areagotzeko asmoa dute Eusko Trenekoek.

Lan horiekin lotuta doaz Mekolan igogailu berria eraikitzeko beharrak. Izan ere, trenbideko beharregatik kale horretako 1, 2 eta 3 zenbakietara joateko zegoen igogailua desagertu egin da eta berria egin behar dute, baina horretarako beharrak ez dira hasiko urte honen amaierara arte. Tren geltoki berriak 80 metro luzeko nasa izango du eta bere alderik zabalena 6 metro izango ditu. Tren geltoki nagusia Estaziño kalekoak izaten jarraituko du, baina Ardantzakoak hobekuntza nabarmenak izango ditu beharrak amaitzen dituztenean.

eibar kaleka

Aldatze

Ardantzatik gora doan kaleari deitzen zaio Aldatze, bertan dagoen dorretxearen izena gogoan (XVII. mendean Juan López de Iñarrak berreraikia, Aldatze ez ezik Aldatsa, Elexalde eta Iñarra ere deitu izan zaio, Ego Ibarra batzordeak jasotakoaren arabera). 1915. urteaz geroztik Probidentziako Andra Mari ikastetxea hartzen du jauregiak.

Pegora kopurua: 9. Erroldatutakoak: 125.



Talde berria Errebalen etorkizunarekin kezkatuta

asteko
2.300
datua

metro karratuko azalera lortu nahi dute Ipuruako kanpoko igerilekuen inguruan, gaur egun dauden 800 metro karratuak hirukoiztuta. Hori lortzeko egin beharreko lanen aurrekontua 856.000 eurokoa da eta datorren urtean amaituta egotea aurreikusi dute, uda sasoirako.

ERREBAL INGURUAN DEN-DA, TABERNA EDO BESTE-LAKO LOKALA DUTEN HAINBAT LAGUNEK EGIN-DAKO DEIALDIARI ERAN-TZUNEZ, ehundik gora lagun elkartu ziren martitzenean Arrate Kultur Elkartearen, Errebalen aurreikusita zegoen merkataritza gunea ez egiteko erabakiarekin kezkatuta. Izan ere, iraila hasieran alkatearekin bildu ondoren, *“lehenengo asmo-ari eutsi eta Errebalen merkataritza jarduerarako ateak zabalik lagatzea”* eskatzen dute ostalari, dendari eta inguruko lokaletako jabeek osatutako taldeko ordezkariak.

Merkataritzari eustea

Eguaztenean prentsari azal-dukakoaren arabera, *“guk uler-tzen dugu, alkateak esan beza-la, momentu honetako lehenta-suna lurzorua berreskuratzea dela. Baina ez dugu nahi une*




Behealdean negozioa dutenetako asko gerturatu ziren Kultura, Errebalgo etorkizunarekin kezkatuta. Orohar, aurrerago merkataritza gunea egitea nahi dute. / SILBIA HERNANDEZ

honetako krisi ekonomikoaren aitzakiarekin Errebalen edozer gauza egitea eta merkataritzari ateak ixtea. Orain ezin bada merkataritza gunerik eraiki, beste aukera batzuk badaude eta horiek aztertzearen alde gaude, beti ere etorkizunean, horretarako aukera dagoenean, merkataritza gunea jasotzeko ideia hori baztertu barik”.

Horrekin batera, merkatu plaza eraitsi aurretik inguru horretan merkataritza bizirik zegoela azpimarratzen dute eta merkataritza jarduera osoa herriaren beste muturrera bideratuz gero, *“San Andres elizatik behera negozioa dutenen lanpostuak kokolan egon daitezkeela”* diote. Elkarteak legalki eratu eta sinadurak jasotzeko asmoa dute.

Oin dala
hamar
urte

1999-X-1 / 287. ZKIA.



- Sasoi hartan ez eguan argi noiz amaituko ziran aurreko urtitan hasitako Udaletxe barrixa egiteko bihar-rrak. Hiru urte lehenago eruan eben bulego danak Portaleara, baiña gero geratu egin ziran lanak.
- Injeniaritza Teknikoko Eskolako ikasliak euredako bakarrik bariztautako egoitza hasi ziran erabiltzen ikasturte hartan. Hobeto aprobetxatzeko milla ikaslerendako prestatutako egoitzan 670 ikasle matrikulau ziran orduan.
- DYAk 25 urte bete zittuan gure herrixan, ordura arte 20.000 asistentziatik gora egiñaz. Hiru ambulanzia eta 20 lagun zittuan Eibarko delegaziñuak eta 70.000 biztanleko eremuaren zaintziari egiten zetsan aurre.
- Simon Aldazabal atleta izandakua hil zan Etxebarrin, 81 urterekin. Markiñan jaixotakua, gure herriko Klub Deportibua iñoiz izan daben atleta onenetakua izan da eta Arrateko igoeriak bere izena hartu dau.

Oin dala 365 egun

2008-X-3 / 650. ZKIA.

- Bariantziaren 3. fasea, Arrajolatik San Lorentzoriñokua juango dana, onartu eban Gipuzkuako Diputaziñuak. Proiektuak 41 millio euroko aurrekontua daka, hortik sei Bizkaiko Dipoutaziñuak ordaintzekuak.
- Euskal Festak gure herrixan antolau zirala ehun urte betetzen zirala-eta, Udalak erakusketia antolau eban. Hórrekin batera, Antxon Narbaizak “1908ko Eibarko Euskal Lore Jokua” liburua kalerau eban.
- Eibarko hiru musika taldek hartu eben parte Deba baillarako Danba-ka musika lehiaketaren 3. ediziñuan: finalera helduko zan Norman, Filipin Folk eta Ni_neu. Hikarak azkenian ez eban tokirik izan.
- Kutxa eta BBK batzearen kontra egiñ eban Udalak. Moziñua trat-zeko egindako plenuan, PSE-EE izan zan fusiñuaren kontra egiñ eban bakarra; bestiak alde eguazen eta PP abstenidu egin zan.




Eusko Jaurlaritzak tabakuaren aurkako legiaren zirriborrua landu dau, eta bertan azaltzen denez, edozein establezimendu itxixetan erretzia debekatzea nahi da. Soziedade gastronomikuetakua neurrixaren kontra agertu dira, soziedadiak leku pribatuak dirala eta ez publikuak esanez.

Zer begittantzen jatzu soziedadietan erretzia debekatzea?



BONIFAZIO LARRABE
77 urte
jubilaua

Neri begittantzen jata desberdiñak dirala soziedadiak eta tabernak. Izan be, bakotzak hartzen dittuan tokiak dira soziedadiak. Frontoietan eta halakuetan ondo ikusten dot debekatzea, baiña norberan etxian norbera da bere osasunaren arduraduna.



PILI GUTIERREZ
62 urte
etxeoandria


Nik ez dot erretzen, baiña halanda be pena pixkat emoten deste erretzailliek, ezin dabelako edonon erre. Hori bai, tartian umiak badagoz normala ikusten dot ez erretzia. Neri begittantzen jata onena erretzaillendako lekua eraikitzea bestiak izorratu barik erre ahal izateko.

SORAYA FERNANDEZ
43 urte
etxeoandria



Leku itxixetan erretzia debekatzea nahiko normala dala begittantzen jata, izan be, erretzaillie pasibuek eta erretzailliek eurek be bestiek keiak jasatzen dittugu. Holan, ondo dago halako lekuetan erretzia debekatzea, bertan jendia badago behintzat.

RAUL RIVAS
33 urte
bihargiña



Oena erretzaillendako lekuak egittia izango zan soziedadien barruan, lekua badago; holan, erretzailliek ez garanok ez dogu euren keiak arnastuko. Halanda be, erretzailliek be errespetatu egin bihar dira, eta neri ez desta keiak gehixegi molestutzen. Zaila da ohiturak be aldatzia.

Optica Beitu
OPTICA BEITU

Onda mitzun habeto biltzeko

Amplifon-ek, entzumen-konponibideetako munduko liderrek, honakoa eskaintzen dizu:

- Entzumen-azterketa doan
- Probatu audifonok doan 30 eguner
- 30%ko deskontua edozein audifono erosterakoan
- Gainera, erabilzaila izanda, zure audifonoaren azterketa doan egin eta pila pakete bat oparituko ditugu

OPTICA BEITU - JULIAN ITXERBERRI, 13
20000 EIBAR - 943 74 02 30
(Bilak aurretik telefonoz hitzartuko dira)

EGOITZA NAGUSIA
Bidebarrieta 20 - behea, eskuma

M FUNERARIA MUGICA

Tanatorio Crematorio del Bajo y Alto Deba

- 1 **Tanatorioa eta Errausketa labea** Elgoibarren (Sigma poligonoan).
- 1 Partikular, mutua eta aseguru etxeei zerbitzuak
- 1 Koroak - Eskelak - Urteurrenako eskelak
- 1 Euskal Herri osoko ospitaleetan hartzen zaitugu
- 1 Nazio eta Nazioarteko trasladoak

Mugica Ehorzketa
Funeuskadi taldea

TELEFONOA (24 ORDU)
943 201 951

Berba egitteko orduan sarritan kostatzen jaku gauza zihetz bateri deitzeko berba egokixa topatzia, oindiok gehixago gauza teknikuen gainian jarduten dogunian. Eibarko taillarretan ofizio bakotxari lotutako berba-zerrendia aberatsa da eta horretako asko jasota geratu dira, hainbat euskaltzaleren biharrari esker. Eta datorren astetik aurrera Jaz-Zubiaurreren 'Eskuila metalikoen hiztegi tekniko' batuko jakue aurretik kaleratutako hiztegixeri.

Azittaingo industrialdian dagan Jaz-Zubiaurre enpresak ibilbide luzia daroia brikolajerako zein beste-lako aplikaziñuetarako eskuillak egitten, 1924. urtetik hain zuzen be. Azken urtiotan, gaiñera, enpresa barruan euskera bultzateko asmuari jarraituta, Euskera Plana ipiñi eben mar-txan 2007xan eta, horretarako, taillarrian bertan jardundakue-kin zein hainbat bihargiñekin Euskera Batzordia eratu eben. Euskera bultzatzeko asmo horretan laguntzeko, gaiñera, ...eta kitto! Euskara Elkartera jo eben eta lantalde osuaren biharraren emaitza nagusixena datorren astian ikusteko mo-



Fernando Larreategi, Amaia Alberdi eta Jose Manuel Urrutxua JAZ Zubiaurreko euskera batzordeko kideak.

Eskuila metalikuak badake euren hiztegixa

duan izango da, eguazten eguardixan, 12.00xetan Portalean egingo daben aurkezpenian: 'Eskuila metalikoen hiztegi tekniko'.

Euskera planaren ondorixua

Fernando Larreategi, Javier Zubiaurre eta Jose Manuel Urrutxua enpresako erreferentia-kiak izan dira, bai biharrin zein euskeriaren erabillerari bultzadia emoteko orduan. Euskera Batzordeko Amaia Alberdirekin batera, biharra gogotik egin dabe datorren astian presentauko daben hiztegixa preparatzeko. Eurak azaldutakuaren arabera, "2007xan euskeriaren erabilleria bultzatzeko plana onartu eta segiduan, biharrin erabilleria bultzatzeko hiztegi teknikuaren premiñia genkagula ikusi genduan". Izan be, taillarrian gauza askori erderaz deitzen jardun dabe urtiotan eta, horregaittik, gauza bakotxarendako euskerazko berba egokixa topatzia zan lantalde honek bere buruari ezarri zetsan lehelengo egin-biharra. Horretarako, eskuillak

sortzeko prozesua goittik behe-ra aztertzen, berbak eta esamoldiak baten, kontrastatzen eta ekarpenak egitten pasau dabe azken urtebetia.

Produksiño-moduari egokitutako hiztegixa

Larreategi, Zubiaurre eta Urrutxua astero batzen ibilli dira, 2008ko hasieratik udara bitartian. Eurak diñenez, "Eduardo Zubiaurrek planteau zeskun holako zeozer egittia, *geu erdi libre, jubilatze-kotan genguazen, haren aitta be eta holan sartu giñan honetan*". Emon eben lehelengo pausua, biharra antolatze-komodua sortzia izan zan.

Larreategik eta Urrutxuak azaldu deskuez hiztegixa osatzeko biharraren nundik norakuak: "Hiztegixa esku artian hartuta, arloka antolatu dogula ikusi leike. Horretarako, taillarrian eguneroko jardunian segitzen dogun prozesuari begiratu eta horretan oiñarritu gara, eskuilla sortzeko emoten diran pausuetan, pauso bakotxian

erabiltzen diran berben zerrendia osatu eta lantzeko".

On-line konsultatzeko aukeria

Hiztegixak hiru atal nagusi dakaz: gaztelera-euskera arloka, lau azpiatalekin (lehen-gaiak, fabrikaziño-prozesua, produktua eta aplikaziñuak), gaztelera-euskera, alfabetikoki eta euskera-gaztelera. Hiztegixa egitten jardun dabenen berbetan, "taillarrian erabiltzeko moduko hiztegixa da, barruko jendiarendako aproposa, baiña edozeiñek erabiltzeko moduko hiztegixa da". Paperian ez eze, enpresaren webgunian (www.jaz.es) euskeriari eskindutako txokuan on-line konsultatzeko moduan dago hiztegixa.

Larreategik eta Urrutxuak diñenez, "hiztegixa egitteko orduan meritorik haundixena Javier Zubiaurrek euki dau. Berak betidanik euki dau interes berezixa euskera bultzatu eta indartzeko. Goguan dakat Euskaltzaindiak 50eko hamarkadan Eibarren egindako billera


FERNANDO LARREATEGI ETA JOSE MANUEL URRUTXUA

- *Tallarrian urte mordua emon dozue biharrian. Zer erabilli dozue gehixago, euskeria ala gaztelera?*

Honek (Fernandorengaitik) beti erabilli izan dau euskeria, baiña egixa esateko jende gehixenak gaztelera erabilli izan dau beti, hiruzpalau lagun kenduta. Geure ahotan Eibarko taillarretan sari-sari entzun eta oindio be entzuten diran berba asko erabilli doguz, armagintzan-eta erabillitako batzuk ixa-ixa lokalismuak dirala esan geinke: 'barautza', 'ardatza' eta holakuak danak ezagutzen dittugu, baiña gure arlokeri deitze ko ez genkan nora jo.

- *'Eskuilla' barik, Eibarren 'zepillua' esango dabe askok.*

Bai, baiña hiztegixa egi-tten hasi eta gauza kurio-suak be topau dittugu. Esate baterako, geuk 'cepillería' berbia urtietan erabilli dogu, baiña hiztegixetan hori zelan euskaratu billatzen jardun dogunian ikusi dogu ez da-guala holako berbarik gazte-leraz (barriak).



“Ezagutzen ez genduazen berba askorekin egin dogu topo”

- *Hiztegixa egitteko biharrian jardun dozuen bittartian be zeozer ikasiko zenuen, ezta?*

Bai, gauza asko ikasi eta denporan erabilli bariko berba asko be freskatu egin dittugu.

- *Hiztegixa bihargiñen ar-*

tian banatzia da zeuen asmua?

Bai, holan egi-ttia pentsau dogu. Danak ez dabe bap-tian hiztegixa hartu eta euskerazko berbak erabilliko, baiña noizbaitten kuriosida-dia dakanak hortxe eukiko dau hiztegixa, konsultatzeko.

batendako ponentzia zelan idatzi eban eta publikau egin zetsen. Hiztegi honekin biharrian hasi giñanian, Javierrek hiztegi pillua hartu eta guk sortutako

berben zerrendarako itzulpen egokixaren billa jarduten eban eta hortxe etortzen jakun hurrengo billerara, demaseko listiak. Gero danon artian berak

emondakuetatik egokixenak aukeratzen genduazen”.

Euskera planaren barruan


Hiztegixa kaleratu aurretik,

Serafin Basauri euskaltzaliak eta ...eta kitto! Euskara Elkarteko Maider Aranberrik gainbegiratu dabe biharra. Horrez gain, hiztegixaren osaketa-prozesuan ...eta kitto! Euskara Elkarteko normalizaziño arloko arduraduna dan Ainara Labado aldamenian euki dabe. Izan be, Labadok enpresaren euskera planaren diseiñu eta garapenian dihardu biharrian hasieratik. Berak esplikau deskun moduan, *“lehelengo eta behiñ tallarrian euskeraren erabilleraren gaiñeko diagnostikua egin zan eta, daguazen bihargiñen artian motibaziño haundixa eguala ikusitta, pauso batzuk emon genduazen: barruko rotulaziñua euskeraz ipiñi, euskera batzordia eratu genduan, euskera klasiak egon dira, ointxe hiztegixa kaleratu dabe eta etorkizunian be gauza gehixago egitteko asmua badake”.*



Edozelan be, herriko industriaren aberastasunaren beste adibide bat da hauxe: produkziñua aurrera etaratziarekin konformau barik, geure hizkuntzari bultzadia emoteko be biharrian dihardute taillar batian baiño gehixagotan.

Asteartero Eibarko alkatiak HAMAIIKA BERBA Irratsaloan orantzungo ditu, eguardiko 12,30etan.
Zure kaxa, proposamena, zalantza bidali helbide honetara: eibar@herri-irratia.com
SMS bidez: Eibar (nahi duzun mezua)
5868 zenbakira, edo zuzenean telefonoz
943 82 06 44 zenbakira.

TEEN-
AJEA



ORBE



Orbeako kiroldegiaren sorrerarekin batera, herrian hainbat eta hainbat kirol-ikastaro berriz gozatzeko eskaintza zabaldu da. Bai uretan, bai uretatik kanpo, Orbean kirola egiteko modu asko daude. Uretako ikastaro horietariko batzuen gidaritzapean 21 urteko Arantxa Marcos dago.

ARANTXA MARCOS, kirol monitorea:

“Onena jendearekin erlazionatzea da”

- Zein ikastaro eskaintzen dituzu Orbeako kiroldegian?

Uretako ikastaroetan ibiltzen naiz ni. Horrela, aquafitness (uretako ariketak bizkortzea, kardiologia... lantzeko), aquarunning (korrika egitea uretan), aquathlon (aquafitness eta aquarunning batzen dituen), aquasalud (pertsona nagusientzako zuzendua), 0. eta 1. mailako igeriketa ikastaroak eta umeentzako igeriketa ikastaroak eskaintzen ditut. Bestetik, sorosle bezala ere egoten naiz igerilekuan.

- Nolakoa izan da ikastaro hauekiko jendearen harrera?

Esan daiteke badagoela jendea, baina iraila nahiko lasaia izan da eta ez da hainbeste jende hurbildu. Izan ere, jaiak zirela-eta, kurtsoaren hasiera, jendea lanera bueltatzea... gauza asko hartu behar dira kontuan eta horiek izan daitezke arrazoiak. Hala ere, poliki-poliki ari da gero eta jende gehiago hurbiltzen.

- Nola ikusten dituzu Orbeako kiroldegiko instalazioak?

Oso ondo daude. Berria izanda, berriak diren ia gauza guz-

tiak bezala oso ondo dago; igerilekua, adibidez, zoragarria da. Hemen ikastaro asko eskaintzen dira, baina oso lasaia da ibiltzea; ez da lpuuak kiroldegiko kaosa bezalakoa. Eta, zentzu horretan, Orbeako kiroldegiaren irekierak lpuuakoa arinduko du. Bestetik, gure ikastaro eta abarretarako ditugun materialak oso ondo daude.


- Noiztik zabilta monitore bezala lanean?

Klaseak ematen urte bat daramat, baina aurretik 3 urte egon naiz sorosle lanean. Nahiago ditut klaseak ematea, aktiboagoa da sorosle bezala egotea baino, izan ere, hortan nahiko aspertzen naiz. Hobe nago klaseak ematen, baina gauza biak tartekatzea izango litzateke egokiena niretzat.

- Zer da lan honetaz gehien gustatzen zaizuna?

Jendearekin erlazionatzea. Adin eta mota guztietako jendearekin dut harremana eta oso gustuko dut. Gainera, berba egitea asko gustatzen zait, berba asko egiten dut.

...eta kitto! Astekariak BANA-



Eginkizuna: ...eta kitto! Astekaria banatzea
Eskara:

- 16 urtetik gora edukitzea
- Barixaku arratsaldeetan libre egotea
- Arduratsua izatea
- Euskerara ondo jakitea ezinbestekoa

Izena emateko deitu 943 20 09 18 telefonora edo pasatu gure bulegoetatik

AKONDIA



Albaitari Zentroa

Julen Arano / M^o Jesus Blanco

Bittor Sarasketa, 12
943 12 74 15



LORADENDA


- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzetarako lorak

San Juan, 1

Tel. 943 20 33 29

Elhuyar eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren ekimenez, herritarrek Gipuzkoa 20 urte barru nola ikusten duten jakiteko proiektua jarri dute martxan. Horretarako, gazteak oso kontutan hartuko dituzte, eurak izango baitira 20 urte barru lurraldean norabidea zehaztuko dutenak.

Nolakoa izango da Gipuzkoa 20 urte barru? Nolakoa izatea nahiko zenuke? Galdera horiek egingo dizkiote Elhuyar Aholkularitzakoek 16 eta 24 urte bitarteko 500 bat gazteri. Gazteek etorkizunaz duten irudia eza gutzea da Elhuyar eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren nahia, eta horretarako ipini dute martxan G+20 proiektua.



Gipuzkoa 2029. Nolakoa nahi duzu?

Gipuzkoako gazteek Gipuzkoan nola bizi nahi duten hausnartuko du Elhuyarrek, eta hori lortzeko bideak proposatu. Horretarako, parte hartzeko prozesuak antolatuko dituzte. Batetik, ikastetxeetan bertan 16-18 urte bitarteko 300 gazterekin egingo dute lan urriari hasita; eta, bestetik, Elhuyarreko teknikariek 19-24 urte bitarteko 200 gazterekin saioak egingo dituzte eskualde eskualde, 20 laguneko taldeetan banatuta eta azaroaren kin batera hasita.

Eskualdez eskualde antolaturiko saioak guztiz irekiak dira. Gainera, emaitzak anitzak izateko, partehartzaileek ere hala izan beharko dute, anitzak. Prozesua amaitutakoan, bes-

tetik, emaitza guztiak argitaratuko dira, Gabonen bueltan, gazteek parte hartuko duten ekitaldi batean. Informazio gehiago www.estrategiag20.net webgunean edo g+20@elhuyar.com helbidera idatziz.


VIII. Zernola Olinpiada abian

Elhuyar Fundazioak, bestetik, zientzia eta teknologiaren VIII. Zernola Olinpiada jarri du martxan, www.zernola.net atariaren bitartez. Euskal Herriko DBHko 1. eta 2. mailako ikasgelei dago zuzenduta, eta urria eta apirila bitartean egingo da. Izena emateko epea zabalik dago www.zernola.net webgunean bertan.

Olinpiadan parte hartzen duten ikasgelek zientzia eta teknologiaren gaineko bost proba gainditu behar dituzte. Gela bakoitzak blog bat izango du, eta hor zintzilikatu behar dituz-

te proben ebazpenak. Lehen postuan sailkatzen den ikasgelako ikasleak Senda Viva natura-parkera joango dira egun bi pasatzera; bigarren sailkatutakoek Espejoko aterpetxean egingo dute egun biko egonaldia; hirugarrenek Arabako Sobron ibaia esploratuko dute; eta laugarren eta bosgarren sailkatutakoek egun-pasa egingo dute Adoingo Uraren Interpretazio Zentroan eta bizikletan ibiliko dira Leitizarango bailaran barrena.

Lehen proba urriaren 26an argitaratuko da, eta parte hartzen duten ikasgelek ia hilabete epea izango dute ebazteko. Zernola Olinpiadaren helburua gazteei zientzia eta teknologiarekiko zaletasuna piztea, talde-lana eta sormena sustatzea eta, era berean, teknologia berrietan trebetasuna harraraztea da.



kaixo lagunak, nafarroa oinez'09
urriaren 18an izanen da
gonbidatuak zaudete!

ETXARRI-ARANATZEN

**AUTO
BUSak**

irteera:
09.30etan,
Ego Gaietik

itzulera:
19.30etan

prezioa: 9 euro



ANTOLATZAILEAK:
J.A. Mogel Ikastolako Gurasoen Elkarte
...eta kitto! Euskara Elkarte

**OHARRA: autobus-txartelak hartzeko
AZKEN EGUNA urriak 14 (asteazkena)**

KATU



**KALE
TABERNA**

BIDEBARRIETA, 1

Elgoibarko Izarra Kultur Elkarteak amatasun-baja betetzeko "Gurean Bai" proiekturako **EUSKARA TEKNIKARIA** behar du. [ESKATZEN DA:](#) Euskara maila altua eta informatikan ezagutza. [CURRICULUMA](#) bidaltzeko azken eguna: urriak 9 (ostirala).



Informazioa:

Elgoibarko Izarra Kultur Elkarte
Ubitarte 4-behea 20870 ELGOIBAR
Tel.: 943 74 17 46 (Amaia)
gureanbai@elgoibarkoizarra.com

Denbora luzean bidaiatzeko momentua zela ikusi zuten Hiart Zugasti eta Iker Lazpitak. Aurretik aurreztutakoa xahutzeko momentua. Plana egin, ibilbidea zehaztu, motxila hartu eta mundua euren gain hartu zuen urte batez bikote honek. Esperientzia harrigarritz beteriko urtea.



Munduari bira urtebetean

Betidanik izan dute gustuko bidaiatzea Hiartek eta Ikerrek, baina 2007-an erabaki zuten epe luzeko bidai bat egitea: munduari buelta urtebetean. *“Munduari bira emateko hegazkin txartelen berri izan genuen, eta bai maila pertsonalean, bai profesionalean, momentu egokia zela ikusita, bidai prestatzeari ekin genion”*. 3.000 bat euro kostatu zitzaizen txartelak, 20 hegaldirekin 4 kontinentetan zehar urtebetean.

Nondik nora jo, eta noiz, izan zen lan neketsuena. *“Txartelak eskatzen dizu bidaiari egingo dituzun geratzeak zehaztea, eta hor konturatzen zara zein motza den urtea asteak zenbatzean”*. Bestetik, herrialdeetako sasoi eta klimak ere kontuan hartu behar zituzten. *“Zeelanda Berria eta Hego Amerika, adibidez, hango udan joan nahi genuen, eta Indiara neguan”*.

Hego Ameriketatik hasita (Argentina, Bolivia, Txile, Pe-

ru), Zeelanda Berria, Australia, Japonia, Txina, Hego-Ekialde Asiatikoa, Nepal eta India gurtzatu zituzten etxera bueltatu aurretik. *“Gauza asko eta asko utzi behar izan genituen kanpo”*, baina ezin izan ziren denera iritsi. *“Toki bakoitzeko kultura eta bizimoduan gehiago sakontzea nahi izango genuke, baina herrialde askotan egon ginen, kultura ezberdin asko ezagutu genituen eta bakoitzetik zati handi bat jaso genuen. Hori zen gure asmoa”*.

Esperientzia pertsonal zoragarria

Paisaia ikusgarriak, toki miragarriak eta txoko zoragarriak deskubritu zituen bikoteak bidean zehar, baina horrekin baino, bidaiak eurengan, euren barrualdean izan zuen eraginarekin geratzen dira. *“Esperientzia pertsonal zoragarria izan zen, ekarpen handikoa. Zure buruarendako denbora gehiago daukazu, tokian tokiko kulturaren eta baita zure barrenean ere hausnartzeko aukera han-*


diak dituzu. Munduko leku ezberdinek beharrean, esperientziak markatu gaitu gehiago”. Horrela, bidaiari aurrera egin ahalako bizipenez gain, *“bakoitzaren barne-eboluzioa dago”*

Urtebetean munduko pertsona asko ezagutzeko aukera izan zuten Iker eta Hiartek, baina asko badaude pasadizo bigogo onez gogoratzen dituztenak. *“Vietnamera heldu ginenean, bapatean, bikote bat euskaraz berba egiten ikusi genuen. Andoangoak ziren. 6 hilabetetan inor euskaraz berba egiten entzun gabe geunden!”*. Bestetik, *“Hego Amerikan ale-*

maniar batzuk ezagutu genituen 3 astetan zehar eta gure ibilbide antzekoa egin behar zutenaz, Indiara heltzen ginarako berriz batzeko gelditu ginen. Orduan, Indiara heltzean, eurekin batu eta txikitako lagunak izango balira bezala agurtu genituen”.

Fantasiatzko zerbait

Urte bidaiari baten ostean, azkenik, etxera bueltatu behar ziren. *“Ez zitzaigun oso gogorra izan, hasieratik mentalizatu ginela urtebetean bueltatu behar ginela. Gainera, guretako ez ziren oporrak izan, beraz ez genuen inolako sindromerik eduki. Hala ere, askotan pentsatu genuen: ‘Hau amets bat da, ipuin bat, lan egin gabe gabiltzalako eta abar. Fantasiatzko zerbait’”*. Euren herria eta ohiturak faltan botatzen zituzten, *“eta bidaietarako ekarritako ‘begi’ horrek mantentzea nahi izan genuen, bakoitzaren lana da hori, baina hemengo bizitzara berehala moldatzen zara zure jatorria hau delako”*. Hala ere, hemendik kanpo bidaiatzeko mitoa apurtu dute Hiart eta Ikerrek. *“Jendeak horrelako bidaiari egiteko animatzea da gure nahia, nahi duenak egin dezake, erreza da eta guztiz gomendagarria. Gurekin kontaktuan ipintzea dauka informazio gehiago nahi duenak”*. Horrela bada, munduari bira@ gmail.com helbidera idatzi edo euren bloga bisitatu: www.blogak.com/munduari bira.



Etorri txotx egitera

Sagardo Egun eraldatua bizi izango dugu biharkoan. Iazko etenaldiaren ondoren, oraingoan berritasun askorekin dator Eguna. Sagardoa egiteko erabiltzen diren tresnak ikusteko eta produktuak dastatzeko aukera izango dugu. Goizean tolaera izango da ikusizun eta sagardo dastaketak arratsaldean izango du jarraipena. Toki askotako sagardoa izango da, gainera; konparazioak egiteko une aproposa izango dugu, beraz.

Urriak 3 zapafua

SAGARDO
EGUNA



sagardotegi laguntzaileak:



2.000 litro
sagardo
Eibarren



ohiturari eutsiz

1993an antolatzen zen lehenengo Sagardo Eguna Eibarren eta, iazko etenaldiaren ondoren, indarberrituta ekingo dio ...eta kitto!-k. Jendeak ondo igarri zuen iazko hutsunea eta antolatzaileek beste tokietan egiten dutena aztertu dute; horrela, Aste Santutik hona, **Orereta, Usurbil, Gros, Donostia eta Aramaioko** Sagardo Egunetan izan dira. Bertan jasotako informazioa eta eskaini izan duten laguntasuna eskertu beharra dago eta, azpiegiturarako eskainitakoaren artean, kokatu behar dugu ere toleara Oreretako lan-taldeari esker izango dugula.



pintxo gehiago

Tolarearen berritasunarekin batera, pintxoetan oraingoan **bakailao tortilak** ere zerbitzatuko dira eta **euskal gozogintza** erosi ahal izango da. Edozer kontsumitu aurretik, **tiketak** hartu beharko dira, edalontziak ere ondoren jasotzeko. Goizean hiru postu egongo dira tiketak saltzeko eta arratsaldean lau.


elkarte gastronomikoekin elkarlanean

Herriko elkarte gastronomikoak egiten duten lanaz jabetuta, ...eta kitto! eurekin elkarlanean hasi da eta oraingokoa da lehenengo emaitza. Pare bat bilera egin eta gero, oso jarrera ona erakutsi zuten eta bost elkarteko kideek jardungo dute sukalde lanetan. Untzagan izan beharrean, **sukalde-lana Kamarroak, Botellín, Untzaga eta Baten-Bi** soziedadeetan egingo da: euretako bitan bakailao-tortila egingo dute eta beste bitan txorizo egosia. Horrez gain, **Peña Txinberan** prestatuko dute Sagardo Egunaren antolaketan eta beharrean jardundako 80 lagunetik gorakoendako afaria. **Eskerrik asko guztiei** emandako erraztasunengatik.



tolarea da berritasuna

Aurtengo egitaraua **11.30etan** hasiko da, Urkizun. Pantxika astuak **400 kilo sagar** eramango ditu Untzagaraino, Musika Eskolako trikitilarien doinuaz lagunduta. **12.00etan** aurtengo edizioko omenduek txotxa zabaldu eta sagarrak botako dituzte tolarera. Ondoren, sagarrak matxakan txikituko dira eta, prentsatik pasa eta gero, muztioa edateko aukera izango da. Omenduek (Eibar KE ordezkatu duten Roberto Cuevas, Carlos Ruben eta Asis Peña jokalariek) bi botila zabaldu ondoren, hasiko da jai.





**AENOR-EN ZIURTAGIRIA
LORTU DUEN BAKILAU
SEKTOREKO 1. ENPRESA**

Albitxuri Poligonoa 1A-11
Tfnoak: 943 74 45 81 - 01
Faxa: 943 74 09 62
20870 ELGOIBAR

**Bakarrik AMUKO BAKILAU
BASATIAREKIN egindakoa**



bacalaosalkorta@bacalaosalkorta.com
www.bacalaosalkorta.com

OKINDEGIA

URKO



ERMUAN ETA EIBARREN



20

sagardotegi

Gipuzkoatik 12:

Arizia
Artola
Iruin-Astiazaran
Bereziartua
Gartziategi
Isastegi
Mina
Oialume Zar
Otsua-Enea
Txindurri Iturri
Rezola
Zapiain

Bizkaiatik:

Axpe

Arabatik:

Iturrieta-Trebiñu
Nafarroatik:
Larralea
Lapurditik:
Txopinondo
Kantabriatik:
El Muro-El Ti Sidru

Asturiasetik bi:

Cortina
Menéndez
Galiziatik:
Manzanova

GOIZEZ
12.00etatik 13.30etara

ARRATSALDEZ
18.00etatik amaiera arte

BI TIKET KLASE IZANGO DIRA:

5 eurokoa (edalonzia, zapia, pintxoa eta nahi beste sagardo)

1'5 eurokoa (pintxoa: bakailao tortila, txorizoa edo gaztaia)

Euskal gozogintza erosteko aukera ere izango da, Mallabiko Mañe baserriaren bitartez



MENDEAK ETA MENDEAK dira sagarra gure kulturaren txertatuta dagoela. Inguratzen gaituen paisajea marraztu digu eta, tresna eta behar zehatz batzuk garatzeaz gain, gastronomia berezia ekarri digu eta gure herriaren bizitza moldeatu ere bai.

Beste fruitu batzuekin batera, intxaurra edo gaztaina horren lekuko, udazken hasieran batu eta ganbararako bidea hartu ohi du. Han bilduta egon ondoren, fruta moduan, erreta, konpota gisa, mermelada eginda... hainbat irteera izango du produktuak, sagardoa egitea euretako bat izanik.

Sagardoa izan da gure baserrietan gehien kontsumitu izan den edarietako bat. Edozein ospakizunetarako, afari-meriendak egiteko... auzolanean egindako beharrak amaituta, barrikote ospetsuaren protagonista izan da. Pittarra edo sagardo urtua ere betidanik egin izan ohi da baserrietan, baina horren salmenta debekatua zegoen.

Orain dela gutxira arte, Eus-



kal Herriko zazpi probintzietan egin da sagardo asko; gaur egun, baina, Gipuzkoak hartu du sagardo produkzioaren ia protagonismo osoa. Bizkaiak, Arabak, Nafarroak eta Iparraldeak, neurri txikiagoan bada ere, badihardute sagardoa egiten; eta ez dira gutxi euren urteroko produkzioari eusten dioten baserritarrak, kalera atera beharrean euren kontsumo propiorako bada ere.

Euskal Herrian sagarraren muztioaren fermentazio edo

hartidura naturaletik ateratako edaria da sagardoa, filtrazio barietate egindakoa. Eta sagardo bakoitzaren ezaugarriak sagar mitatz, garratz eta gozoen arteko nahasketa egokitik etorriko da.

Baserri batzuk euren tolare propioa izango dute eta beste batzuk hara eramango dituzte sagarrak muztioa egin eta euren barriketan fermentatu edo irakiteko. Sagardotegiak hiru solairu izaten zituzten: goikoan, ganbaran, sagarrak biltzen ziren eta matxakarekin birrindu; erdikoan tolarea edo prentsa zegoen; eta behekoan kupelak zeuden.

Horietako baserri batzuk elkartzeko eta dibertsioan jarduteko gune bihurtu ziren; bertan gizonezkoak batzen ziran berba egin, boloetan eta kartetan jardun, gaztainak sardina zaharrekin jan eta sagardoa pitxer edo txarroetan edateko. Hori bai, bertsoak botatzea ahaztu gabe!

Salmenta sistema ohikoena txotxa zen. Kupelak txorrota zuten eta mostradore atzean zegoenak zerbitzatutako txarro bakoitzeko kobratzen zuten. Txarro horiek hainbat neurritakoak izaten ohi ziren: pitxerra (azunbre bat); pitxerdia (litro bat); pitxerdi edo txopin (litro erdi); txikia (litro laurdena); eta txikiardi (litro zortzirena).

Gaur egun, sagardotegiak jendea elkartzeko eta dibertsioan jarduteko guneak izaten jarraitzen dute, ospe handia hartu duten euren sagardotegiko menua eta txotxarekin. Eta sagardoaren kultura berreskuratzen doa Euskal Herri osoan. Gure tradizioei eutsiz, gure identitate propioari ere eusten diogulako; horregatik bakarrik bada ere, sagardoa gure patrimonio ekonomikoa eta kulturalaren parte kontsideratu behar dugu.



JOSE MARI SOLOGAISTUA, 'ZESTERO':

"Kalabaza asko jasotzen genuen erromerian"

Usartzako erromerian egoten zen jai-giroa gogoratzeko bazkaria egingo da domekan Krabelin hotelean. Urteetan zehar egindako erromeriaren oroitzapen gozoak ditu Jose Mari Sologaistua 'Zestero'-k eta bera aritu da bazkariaren antolaketan. Musika, dantza eta bertsoak, printzipioz, ez dira faltako.

- Nolatan egingo duzue Usartzako erromerian ibilitako bazkaria?

Gure artean berbetan ibiltzen ginen beti ea noiz egingo genuen bazkari edo horrelakoren bat. Horrela, behin eta berriz aipatzen zidaten zita antolatzeke eta horrela egin dut. Krabelin hotelera jo, hango Mireiarekin berba egin eta urriaren 4ean bazkaria egitea posible zela aipatu zidan. Tamalez, gauzak nahiko presaka egin direnez, ez nintzen ohartu domekan Aginagako jaiak direla eta bertan hainbat kirol-proba eta abar egingo direla, beraz, jende asko ezin izango da bazkarira etorri, 40 bat pertsona kalkulatu dut nik. Bestetik, kilometroak ere ospatzen da eta zita horrek ere jendea eramango du hara gure bazkariaren kaltetan. Hala ere, 40-50 pertsonak izena eman dute bazkarirako eta giro ederra izango dugula ziur nago. Bazkariaren ostean erromeria egongo da musika eta dantzarekin, eta Narbaiza bertsolariak zer esan ere izango du.

- Aurretik egin al duzue Usartzako erromerian ibilitako bazkari edo bilerarik?

Entzuna dut aurretik norbait aritu zela horrelako gauzaren bat antolatzen eta egin zela, baina hau da nik antolatzen dudana lehena.

- Nola hartu du erromerian ibilitako jendeak ideia?

Harridura eta poztasunarekin. Pentsa, Elgoibar inguruko jendea ere etorriko da, San Pedro eta San Lorentzotik.

- Nola antolatzen zen erromeria?

Gogoratzen dut Txominek izaten zuela erromeria antolatzearen ardura. Dena dela, erromeria ez da beti Usartzan egin, izan ere, Gerra Zibilaren aurretik Kalamuako zelaian egiten zen. Bertara gaztaina sortak eta abar eramaten ziren, eta han egiten zuten erromeria. Ondoren, Gerra ostean, Usartzan antolatzeari ekin zioten. Horrela 1970. hamarkadara arte.

- Zein oroitzapen daukazu Usartzako erromeriaren gainean?



Gogoratzen dut 100 bat lagun biltzen ginela Usartzan. Arrate Balle, Gorosta Balle, Mandiola Balle, Aginaga Balle, San Pedro eta San Lorentzoko jendea etortzen zen, besteak beste. Gogoratzen dut, baita ere, bazegoela baten bat zaldian etortzen zena. Usartzako zelaian biltzen ginen, askaria egiten genuen, jokuan aritzen ginen eta musikarekin dantzan gero. 'Kalabaza' asko jaso genuen bertan (barreak), orain ligatzeko kontuak errazagoak dira. Domekara arratsaldeko 19.00etatik 23.00etara egoten ginen han, orduan ez zen gaupasarik egiten.

- Zergatik laga zitzaion, bada, erromeria egiteari?

Poliki-poliki gauzak aldatu egin ziren, gizartea aldatzen jo-

an zen eta erromeriara joateko ohitura desagertzen. Dantza-aretoetara joaten hasi zen jendea eta, kotxeen presentzia gero eta handiagoa zenez, eurentzat errazagoa zen alde batetik bestera mugitzea eta ez ziren hainbeste geratzen erromerian. Horrela, batzuk erromeriaz erromeria ibiltzen ziren, herri batetik bestera, baina gainera barik. Batean eta bestean aspertu egiten ziren, beraz, erromerierikiko interesa galdu eta dantza-aretoetara joateko ohitura gailendu zen.

- Posible ikusten duzu orain Usartzan egiten zenaren antzeko erromeriarik egitea?


Zaila ikusten dut, gauzak asko aldatu direlako. Jendeak, batez ere pertsona gazteek, beste ohitura batzuk ditu eta erromerian kontua ez da euren buruetan sartzen. Hala ere, badaude lekuak non erromeriak egiten diren, Aia edo San Salvadorren, adibidez. Agian ez dira astero-astero egiten, baina bai sarritan. Dena dela, gaur eguneko erromeriak ezberdinak dira. Bertan biltzen diren gehienak nagusiak dira, gazteek ez daukate kultura hori. Gainera, badago trikitixa maneiatzen duen gazterik? Egongo da baten bat, baina lehen denok genekien, nahiz eta nahiago genuen dantza lotuan ibili.



Orain dela urte batzuk egindako erromeriaren irudia, Usartzako jatetxearen kanpo aldean.

Iñigo Agirre eibartarrak marka egin du Mutrikuko herri-krosean

GAUR EGUN MUTRIKUN BIZI DEN INIGO AGIRRE EIBARKO ATLETAK MARKA BERRIA EZARRI ZUEN ASTEBURUAN jokatutako Mutrikuko XII. herri-krosean. Guztira, 128 parte-hartzaile izan zituen proban, 35 minutu eta 42 segundo behar izan zituen Agirrek helmugara iristeko; emakumeetan, berriz, Olatz Gabilondo azkoitiarra izan zen onena, 45 minutu eta 57 segundoko denborarekin. Proban omenaldia egin zitzaion Ohiane Kortazarri, mendi-ibilaldietan eskuratutako hainbat titulurengatik.



Xake Eskolakoek hainbat sari irabazi dituzte aurreko ikasturteetan.

Astehenean hasiko dira Xake Eskolako klaseak

HILABETE HONETAN HASIKO DA ERE HELDUEN XAKE DENBORALDIA, GIPUZKOA-KO BAKARKAKO TXAPEL-KETEKIN, baina eurei aurrea hartuz hilaren 5ean martxan ipiniko da Xake Eskolaren ikasturtea. Astehenen eta eguenean emango dira klaseak, iazko moduan 17.00etatik 18.30etara; hori bai, oraingoan Klub De-

portiboaren egoitzan (T. Etxebarria, 16 - 1. solairua). Eskolarteko txapelketetan, Kutxakoa eta beste hainbat ekintzatan parte hartzeko aukera izango dute aurte ere Eskolan izena ematen dutenek. Informazio gehiagorako, 680228878 telefonora deitu dezakezue edo xakea@deporeibar.com helbidera idatzi.

Waterpolo ezagutzeko ate irekiak

BIHAR ETA HURRENGO ZAPATU BIETAN (HAU DA, HILAREN 3-AN, 10-EAN ETA 17-AN) ATE IREKIETAKO JARDUNALDIAK IZANGO DIRA ORBEA KIROLDEGIAN, waterpoloaren nondik-norakoak ezagutarazteko asmoz. Deialdia 1992 eta 1997 urteen artean jaiotakoei zuzentzen zaie, infantil, kadete zein jubenil mailetako neska-mutilei. Disziplinarekin hasteko eta ekitaldietan parte hartzeko, kiroldegiko sarreran 14.15etan egotearekin nahikoa dela diote Urbat-Urkatronik taldeko arduradunek.



Nesken taldea da aurtengo berritasunetako bat Eibar Rugby Taldean.

Rugbilari seniorrek Bartzelonan hasiko dute denboraldia

EUREKIN BATERA MAILAZ IGO ZUTEN AURKARIA IZANGO DUTE HIERROS ANETXE EIBAR RUGBY TALDEKOEK DENBORALDIA HASTEKO. Bartzelonan jokatu beharreko partidu horretarako litekeena da eibartarrek plantila osoarekin ezin aurre egin izatea, zapatuan Unben jokaturakoan hainbat kanporatze izan baitziren. Maila "elkartrukatu"

dutenen arteko norgehiagoka izan zen asteburukoa (Atlético SS iazko eibartarren mailara jaitsi da eta Hierros Anetxe donostiarrak zutenara igo) eta, neurketak aurrera jo ahala, joko zikina gero eta presentago egon zen. Azkenean eibartarrak nagusitu ziren 15-3, batez ere bigarren zatian Iñaki Alberdik eta Mikel Gallegok eskuratutako entseguei esker.

Kluben Artekoko pelota partiduak Ipuruan jokatu dira asteburu honetan

ASTELENA FRONTOIA EXPOADINTSU AZOKAK OKUPATZEN DUELA-ETA, KLUBEN ARTEKO TORNEOKO PARTIDUAK IPURUA KIROLDEGIAN JOKATUKO DITUZTE asteburu honetan Deportiboko ordezkariak. Bihar,

17.00etatik aurrera, jubenil mailan Agirresarobe-Erik bikoteak Idiazabalgo ordezkariak osatutakoari egingo dio aurre eta, seniorretako buruz-burukoa, Bengoetxeak Hernaniko ordezkaria izango du aurrez-aurre; etzi, bestalde, 11.15etan,



Etxaniz-Egaña eta Azpeitiako bikotea izango dira, nor baino nor.

Asteburuan jokaturako partiduetan, Larrauri-Andonegi kadeteek eta Etxaniz-Egaña seniorrek galdu egin zituzten Astelenan jokaturako euren partiduak, Bengoetxeak Bergaran Mugaruzari 13-22 irabazten zion bitartean.

Agirrebeña eta Etxaniz bikotea garaile izan zen Arrateko Kofradia egunean.
/ LEIRE ITURBE

Eibar-Pontevedra neguko ordutegiarekin

DOMEKA ARRATSALDEKO PARTIDUA ORDUBETE LEHENAGO HASIKO DA, HAU DA, 17.00-ETAN; modu horretan, neguko ohiko ordutegiari jarraituko dio partiduraren hasierak. Talde arriskutsua



izango du aurrean Eibarrek, minduta etorriko dena gainera azken jardunaldian Lugorekin 0-5 etxean galdu eta gero. Pontevedra, dena dela, beti ibiltzen da 2. B mailako goiko postuetan eta baita igoera fasea jokatzen. Viaderok zuzentzen duen taldeari dagokionez, aldaketa batzuk egitera behartuta dago, Lombraña eta Kijera kanporatuak izan baitziren domeka eguerdian Vigon jokatutako neurketan; modu horretan, seguruenik Andres eta Piette izango dira atzeko lerroko alboetako postuetan jokatuko dutenak eta, Valín pibote postura pasatzen bada, Añibarro itzuli daiteke atzeko lerrora.



Urkiko kadeteen partidu gogorra

ARETXABALETAREN AURKA 0-1 GALDU ZUTEN UNBEN URKIKOEK. Oreak handia ikusi zen jokoan eta maila ona erakutsi zuten Segoviak eta Juan Franek zuzendutako eibartarrak domeka goizean jokatutako partiduan, baina lehenengo zatian Leintz bailarakoek sartutako golak erabaki zuen azkenean neurketa.

Arratek Alcobendasen jokatuko du domekan

LIGAKO BOSGARREN JARDUNALDIA JOKATUKO DU ARRATEK ALCOBENDAS MADRILGO TALDEAREN KANTXAN, domekan 20.00etan hasita. Rafa Guijosa entrenatzailearen mutilek Vigon irabazi zuten azken jardunaldian (24-27) bertako Pilotes Octavioren aurrean eta eibartarrendik puntu bakkerra daude sailkapenean. Eibartarrek, bestalde, garaipen bi lortu dituzte jarraian eta sasoi onean dihardute. Arrateren 1. Nazional mailako taldeak, bestalde, La Lagunarekin galdu zuen asteburuan Ipu-ruan (25-26) eta Ereintza hartuko du oraingoan.



Urkuzua taldeko kirolariek eta euren familiakoek egunaz gozatzeko aukera izan zuten.

Urkuzua, zikloturisten familia

OHIKOARI JARRAITUZ, URKUZUA ZIKLOTURISTEN TALDEKOEK URTEROKO IRTEERA EGIN ZUTEN. Gero eta taldekide gehiago duenez, herrian geratzea erabaki zuten, kostaldera irten eta Arraten amaitutako jardunaldiarekin. Itzulia eginda, herrian geratu ziren emazte eta seme-alabekin, jarraian denak batera bazkaltzeko.

Iñigo Gisasola eskualdeko txapelduna ehizan

ZAPATUAN ZAMBRRANAN JOKATUTAKO DEBARRERENAKO EHIZA TXIKIKO TXAPELETAN gure herriko Diana ehiza eta arrantza elkartereko Iñigo Gisasola izan zen garaile, sei eperrekin. Alberto Bico taldekidea 3. postuan sailkatu zen, azken honek lau eper botata; Valentin Ostiategi iazko txapelduna eta Enrique



Iñigo Gisasola Zambranan irabazitako saria jasotzen.

Isasi kanpoan geratu ziren, domekan jokatuko den Gipuzkoako txapelketarako txartelik gabe. Castilloko ehiza-barrutian eskualdeko soziedade guztietako

ko hiru onenek hartu zuten parte eta, horrela, beteranoen mailako txapelketa ere izan zen jokoan eta hor J.M. Isasi izan zen onena. Eguraldi kaskarra ez bazuten izan ere, bero larri-gaua izan zen gauza onerako

Eskuderien arteko saria eibartarrentzat Durangoko Rallyan

AURREKO EDIZIO BIETAN LORTUTAKOARI JARRAITUZ, ASTEBURUAN HIRUGARRENEZ IRABAZI ZUTEN ESCUDERIA EIBARREK DURANGOKO KLASIKOEN IX. RALLYAREN TALDEKAKO SAILKAPENA. Oraingoan Xabier Redondo eta Fernando Beorlegik (BMW 318) eskuratutako sailkapen orokorreko 2. postuarekin konformatu behar

izan zuten eibartarrek eta lan bikaina egin zuten ere Enrique Bernedo eta Unai Villamerielek (BMW 635 CSI), jokatutako 500 kilometroetan inolako akatsik ez baitzuten egin kronometratutako 13 tramoetan. Sunsundegi Memorialaren faltan, eibartarrek Euskadiko FEVA Sariaren atal guztietako lehenengo postuak betetzen dituzte.

Munduko artisautza eta gastronomiaren topagunea izan zen Untzaga joan den astean. 21 stand-etan eskuz egindako munduko libururik txikiak, pitxiak, Indiako jantziak... eskaintzen ziren, besteak beste. Tartean, Asier Lopez eibartarraren lur eta itsasoko antojoen postua. Arrakasta izan zuena, gainera.

AITOR LÓPEZ, lekale saltzailea:

"Dendan aspertuta nago eta mugimendua behar dut"

- Nolako balantzea egiten duzu artisautza eta gastronomiaz azokaren gainean?

Bai salmenta, bai giroaren aldetik, oso positiboa bertan egon ginen guztiondako. Guztiek izan bazuten ere harrera ona, batzuk aipatzekotan, eskularru ekologikoaren eta zartaginena aipatuko nituzke. Uda aldean Deba eta Mutriku moduko herrietan ibili gara eta, eibartar asko egoten denez uda pasatzen, askok galdetu ziguten: "Stand honetako ez dator? Eta bestea?". Ezagutzen gintuzten eta errepikatu egin zuten askok. Bestetik, Eibarko biztanleria handiagoa denez, udan baino pertsona gehiago hurbildu zen hona euren stand-ekin.

- Zu eibartarra izanda, normalean baino jende gehiago izan duzu?

15 urte daramatzat Eibartik kanpo bizi izaten, baina jende asko ezagutzen dut, nire standera hurbildu zena. "Ene, Aitor da ba!", "Ipuruakoa da hori, barren", horrelakoak entzuten nituen. Aspalditik ikusten ez nuen jendea ikusi ahal izan nuen eta oso gozagarria izan zen esperientzia.

- Zer eskaintzen zenuen Untzagan, zehazki?

Lur eta itsasoko antojoak. Adibidez, Santoñako antxoak, olagarroa edo bonitoa itsasoko produktuetatik, eta lekaleak lurrekoetatik. Kontua da ez dela lekaleen sasoi, orain ari bait dira jasotzen, beraz, ezin izan nuen gauza gehiegirik eraman Eibarrera. Adibidez, 20 lekale mota ezberdin soilik



eraman nituen, normalean 30 izaten ditudan bitartean. Hala ere, oso harrera ona izan zuen nire standak, jatorri-izendapeneko eta kalitatezko produktuak baitira.

- Noiztik zabilta salmenten mundu honetan?

Produktuak saltzen 24 bat urte, baina horrelako azokak prestatzen urte bat eskas. Aurretik beste azoka batzuk antolatzen lagundu dut, baina orain niregain hartu dut ardura.

- Eta nolakoa da azokaria izatea?

Oso gustuko dut. Bilbon denda bat daukat, baina aspertu egiten naiz bertan, mugimendua behar dut. Gustuko dut azokak antolatzea. Askok esaten didate: "Nola igartzen den aspertu egiten zarela". Eibarren bizi nintzenean, adibidez, auzoko jaiak antolatzen nituen.

- Non eta noiz izango da azokaren hurrengo zita?

Euskal Herri osoan ibiliko gara. Baina, Eibartik hurbil, hurrengo Zumaian izango da, urriko zubian; eta hurrengo Elgoibarren, Domu Santu egunean.



Ane Gabarain eta Ramon Agirrek taularatutako lanak lau Max sari jaso ditu.

Ahuntza edo nor da Silvia?

TXALO ANTZERKI TALDEAK EDWARD ALBEE EGILEAREN LANA TAULARATUKO DU DATORREN ASTEAN, hilaren 16an, 20.30etatik aurrera Coliseoan (sarrerak 10 euro balio du). Carlos Zabalen zuzendaritzapean jardungo dute euskal antzerkigintzan aski ezagunak diren Ramon Agirre, Ane Gabarain, Asier Hormaza eta Asier Oruesagasti aktoreek, Julia Marinek euskaratutako gidoiari jarraiki.

Konpainiak berak azaldutakoaren arabera, "Ahuntza tragedia bat da, drama sutsu eta mingarria, maitasunaren, zelearen eta idealen muinean zuze-

nean jotzen duen lana. Lanaren hasieran Martin aurkezten da, Pritzker sari entzutetsua irabazi berri duen arkitektoa, baita Elena ere, haren emazte maitea. Une dibertigarriak ematen dituzte biek: elkarrizketa zorrotzak, erantzun burutsuak eta broma konplizeak. Bikote perfektua da, itxuraz. Baina senar-emazte perfektu horiek, bizitza ia perfektu hori mila puskatan hausten da Martinek Silviarekin maiteminduta dagoela aitortzean. Izan ere, Silvia ahuntz bat da. Hortik aurrera Martinen inguruko guztiek animalia baliatzen ikusten dute".



Ikuskizunak dantza, olerkiak eta musika tartekatuko ditu.

Umeendako antzerkia Coliseoan


ELIRALE ANTZERKI-DANTZA KONPAINIAK 'LODRIKOKO' AN-TZEZLANA ESKAINIKO DU HILAREN 10-EAN (zapatua) Coliseoan, emanaldi bikoitzean: 17.00etan eta 18.00etan. Ordu erdiko iraupena duen lana urtebete eta 8 urte bitarteko umeentzat proposa da eta sarrerak 3 euro balio du. Dantzak, olerkiak eta musika tartekatuko dituzte ikuskizunean.

Aginagako jaiak asteburuan

SAN MIGUEL EGUNA MARTITZENA IZAN BAZEN ERE, BIHAR ETA ETZIRAKO JAI EGITARAU SENDOA OSATU DUTE AGINAGA AUZOKOEK.

Agiña Elkartek antolatuta, zapatuan arratsaldetik hasiko dira ekitaldiak: 17.00etan briska txapelketa jokatuko dute eta ordu erdi geroago, berriz, umeendako jolasak hasiko dira (gaztelu puzgarria, pelota partiduak, diskoteka eta txokolate jana). 21.00etatik aurrera lagunarteko afaria egingo dute auzoan bertan eta, ondoren, gaua girotzeko, suzko erroberak egongo di-


ra eta jarraian Kupela taldeak erromeria eskainiko du. Goizaldera arte irauten dutenentzat txokolate jana egongo da. Eta domekan jaiak jarraipena izango du: 11.00etan San Miguel ermitan meza nagusia ospatuko da eta, urteroko moduan, Goruntz abesbatzak bertan abestuko du. Meza ondoren Zerutxu dantza taldearen emanaldia hasiko da eta eguerdi alderarako Gorriti eta bere abereek girotutako piskolabisa prestatu dute. Bazkaltzeko paella-jana egingo dute auzotarrek, trikitilariak alaituta eta, aurtengo jaiak agurtze-



Gorriti eta bere abereak domekan izango dira beste behin Aginagan. / LEIRE ITURBE

ko, idi-probak jokatuko dira (pisu librean bustarri bat eta kintapeko bustarri bi).


Topalekua martxa betean



ARRATE KULTUR ELKARTEAREN ERAKUSKETA ARETOAK OHIKO MARTXARI HELDU DIO IKASTURTE HASIERA HONETAN. Domekara arte Maria Teresa Unzuetauren koadroak ikusteko aukera dago (gaur 19.00etatik 21.00etara eta bihar eta etzi, berriz, 12.00etatik 14.00etara eta 19.00etatik 21.00etara). Urriaren 9tik 18ra, berriz, Esther Fernandez de Maruriren lanak egongo dira ikusgai eta hilaren 23tik azaroaren 1era arte, berriz, Anton Urrestirenak.

Galiziako enpanadaren jai arrakastatsua

ZAPATUAN JAI GIRO EDERRA BIZI IZAN ZEN URKIZUKO PARKEAN, AS BURGAS GALIZIAKO ETXEAK antolatutako Galiziako Enpanadaren jaiak. Enpanada lehiaketan parte hartuzera animatu zirenez gain, beste askok enpanada zatiren bat jatera gerturatu ziren eta txikiak, berriz, primeran igaro zuten arratsaldea, parkean ipinitako puzgarrietan saltoka.



Argazkilaritza digitalaren inguruko ikastaroa

URRIAREN 5-EAN ZABALDUK DA ARGAZKILARITZA DIGITALA EZAGUTZEKO ETA OINARRIZKO KONTZEPTU ETA TEKNIKAK IKASTEKO kurtsoan izena emateko epea. Ikastaroan 16 urtetik gorakoek eman dezakete izena eta klaseak Jose Valderrey argazkilariak emango

ditu, Portalean, urriaren 19, 21, 26 eta 28an eta azaroaren 2, 4, 9, 11, 16, 18, 23 eta 25ean, 19.00etatik 21.30etara. matrikulak 65 euro balio du Eibarren erroldatuta daudenentzat (100 euro kanpokoentzat). Izena emateko Pegorara jo daiteke, hilaren 16ra arte.

laburrak

BERTSO-PAPER LEHIAKETA

Atzo zabaldu zen San Andres bertso-paper lehiaketan parte hartzeko epea. ...eta kitto! Euskara Elkartek antolatzen duen lehiaketako edizio honetan bada berritasunik:

16 urtetik gorakoan mailan Euskal Herri osora zabaldu ditu ateak lehiaketak eta, horrez gain, Lehen Hezkuntzako ikasleentzat eta DBHkoentzat mailak badaude. Informazio gehiagorako ...eta kitto!-ra jo daiteke (943200918 telefono zenbakia). Lanak azaroaren 6ra arte jasoko dira.

ERAKUSKETA BERTAN BEHERA

Gaur Portalean zabaltzekoan Zen Klub Deportiboko Argazki Taldearen argazki erakusketa bertan behera geratu da, Udal Artxiboa tokiz aldatzeko beharrak direla-eta.

GAZTEENTZAT TXAPELKETA

...eta kitto! Euskara Elkartek gazte-lokalen arteko txapelketa antolatu du, lokaletan aisialdian egiten dituzten jokoetan oinarrituta (Playstation, ping-pong, mahai-foballa, mus-a...). Parte hartu nahi duten gazteek urriaren 11ra arte izango dute izena emateko aukera. Horretarako edo informazioa eskatzeko 943200918 telefono zenbakira deitu daiteke.

Kontxi
Kerexeta

Wanted

Gaurkoan ariketa literarioa proposatu nahi nizuke. Nobela beltz baten hasiera eskainiko dizuet eta zuotako bakoitzak jarraipena eta amaiera orijinala emateko ahalgina egin ezazue. Hona nire istorioa: goizean ohetik altxa, gosalduta eta etxetik atera da gizona. Tren geltokian tren hartu eta oso urrun ez dagoen hirira joatea da bere asmoa. Senideei egun batzuk lagunuen etxean pasako dituela esan die; gaixotasun larria du eta lasaitasun pixka baten bila dabil. Astebate barru ospitalean hitzordua duenez, orduan izango dute berriro elkarren berri. Baina mediku kontsultara ez da agertu. Arduratu dira senide eta lagunak, galdezka hasi dira, bila, inolako berririk ez eta epaitegian jarri dute salaketa. Gizona desagertua da, bere borondatez kontra. Nobela beltz baten hasiera izan zitekeena errealitate gordina da. Baionan, apirilaren 18an, Toulousea joateko asmoz trenera igo zen gizona -47 urtekoa, donostiarra, preso ohia, errefuxiatua-, baina ez zen iritsi berak nahi zuen geltokira. Inork ez omen du gehiago ikusi. Bost hilabete igaro dira desagertu zela edo, zantzu guztien arabera, desagerrarazi zutela; denbora asko da eta bizirik aurkitzeko itxaropena gero eta urriagoa. Teleberrietan, irratiko albistegietan, egunkarietako azaletan, politikari ofizialen ahotan ez dugu gertaerari buruzko aipamenik ia jaso edo, izatekotan, gezurak entzun ditugu. Ezkutuan, ixilean laga nahi izan dute eta agintariek ez dute desagertuaren bilaketa lanik abiarazi. Lehen ere izan dira desagertuak Euskal Herrian; ez da berria. Haatik, senide, lagun eta herritarrek galdera bat egiten diete arduradunei: Non dago

Erakusketa, bazkaria eta Arteta Sostoaren 25. urteurrenereka

SOSTOA ABESBATZAK AU-RRERA DIRAU BERE SO-RRERAREN 25. URTEURRE-NA OSPATZEKO EKITALDIE- KIN eta urrian antolatutako en artean garrantzi berezia duten hiru garatuko dira. Datorren astean, urriaren 9an, abesbatza- ren 25 urte hauetako ibilbideari errepaso emango dion erakusketa inauguratuko da 19.00etan Portalean. Hilaren 25era arte, martitzenetik dome- kara 18.30etatik 20.30etara za- balik egongo den erakusketan argazki bilduma ederra ipiniko dute denon eskura. Erakuske- tarako materiala batzeko lan- taldean jardun duen Begoña Domínguez berbetan, *"kontzertuetan, kanpora egindako bidaietan eta hartutako argaz- kiekin batera, abesbatzak jaso dituen opariak, irabazitako ga- raikurrak, erabilitako jantziak, partiturak eta beste hainbat ikusteko aukera izango da. Hor- rez gain, ordu biko iraupena duen proiektzioa eta hainbat grabazio ikusi eta entzuteko moduan izango dira"*. Urtebete eman dute datorren astetik au- rrera ikusgai izango diren ob- jektuak batzen.

Ainhua Arteta San Andres elizan

Bestalde, hilaren 17an Sos- toa abesbatzaren eguna ospa-



Cristina Telleria Sostoako presidentea, Begoña Gutiérrez erakusketako arduraduna eta Mariajose Telleria Kultur zinegotzia herenegun egindako aurkezpenan. / EKHI BELAR

tuko dute, gaur egun Sostoan dihardutenek zein inoiz jardun- dakoek elkarrekin egingo duten bazkariarekin. Bazkariak gain beste hainbat ekitaldi egingo dira. Joan nahi duenak urriaren 10erako izena eman beharko du, Kutxan horretarako zabal- du duten kontu korrontean 55 euro sartuta.

Baina, duda barik, askok gogo biziz itxaroten duten eki- taldia Ainhua Arteta soprano- ak emango duen kontzertua da. Rubén Fernández-Agirre pianojolea aldamenean due- la, urriaren 24an izango da kontzertua, 22.00etan, San Andres elizan. 600 sarrera salduko dira, 25 eurotan, El Corte Inglés, Aierbe eta Coli- seon.

Kantabriako Etxeko bazkaria



ASTEBURUAN AGURTU ZI- TUZTEN AURTENGO BIEN APARECIDA AMA-BIRJINA- REN OMENEZKO JAIK Ei- barren bizi diren kantabriarrek, Arrate hotelean egindako baz- kariarekin. Hala ere, hilabete osoan, asteburuero izan dute ekitaldiren bat: Kantabriako jo- ko tipikoen inguruan antolatuta- ko lehiaketekin batera, bertako musikarentzat ere izan dute tarterik, Eibarko Kantabriako Etxeak prestatutakoei esker.

EUSKARAREN

99 HERRI, 99 BERTSO-ES- KOLA. Bertsolari Txapelketa Na- gusia hasiko da asteburu honetan Zestoan, abenduaren 13an BECen amaitzeko. Horren inguruan, ber- tsolaritzak bizi duen egoeraren ber- ri ematen duten hainbat datu kale- ratu dira: 2008an 1.827 bertso saio erregistratu ziren Euskal Her- rian. Formatuak dagokienez, %25 bertso-bazkari edo afariak izan zi- ren; beste %25 plaza-librekoak; eta jaialdiak, berriz, %19. Urte osoan eskaintzen diren saioen arte- an, sariketei eta txapelketei dago- kiena %9 da. Bertsolarietara etorri- ta, iaz 250 bertsolarik jardun zuten aipatutako plazetan (205 gizonek eta 45 emakumek). Eta, bertsolari- tzaren errealitate zabalarri begira (bertsolariek, gaijartzaileak, epai- leak, saio antolatzaileak, bertso irakasleak, zaleak), egun 608 kide dabilta bertso-eskoletan, 99 herri- tako 99 bertso-eskolatan. Txapel- keta Nagusian oholtzan ikusiko di- tugun bertsolari gehienak halakoe- tatik irteerakoak dira; gainera, zazpi haurretatik batek bide hori hartzen du.


TXOKOA

laztanak emoten...


Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena (bikoteak...) 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.




Irailaren 26xan BITTORI eta JOSE MARIren urrezko ezteiak ospatu genduzen. Zorionak, famelixaren partez.




Zorionak, MARKEL, txapeldun, domekan lau urte beteko dozuz-eta. Muxu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, HELENE Belar Salado, bixar bost urte beteko dozuz-eta. Illargiraño eta buelta maite zaittugu. Aita, ama eta Mirenen partez.



Zorionak, DANEL Portu Uribeetxeberria, bixar urte bi egingo dozuzelako. Muxutxu bat famelixaren partez.



Zorionak, ANDER eta IBONE Ereña Puente, astelehenian bost urte egin zenduen-eta. Famelixaren partez.

zineafilmakzinea **3an, 19.30 eta 22.30etan**
4an, 19.30etan; 5ean, 20.30etan

coliseo 1

"Qué les pasa a los hombres"

Zuzendaria:

Ken Kwapis

Aktoreak:

Ben Affleck, Jennifer Aniston, Drew Barrymore, Jennifer Connelly...

coliseo 2

"Millenium 2"

Zuzendaria:

Daniel Alfredson

Aktoreak:

Michael Nyqvist, Noomi Rapace, Annika Hallin, Per Oscarsson...

coliseo 3


"Malditos bastardos"

Zuzendaria:


Quentin Tarantino

Aktoreak:

Brad Pitt, Diane Kruger, Mélanie Laurent, Christoph Waltz...



20 eta 30 urte arteko lagun talde baten bizitza ezagutzeko aukera izango dugu; Baltimoren bizi dira eta lehenengo zitak edo eta ezkontza ordukoak zer nolakoak diren ezagutuko dugu. Emakume eta gizonezkoen arteko harremanak ez dira beti errazak...



Millenium-eko laguntzaile bi hil dituzte; Lisbethek hil dituela dirudi; Mikaelek ez du hori sinisten, baina zaila du kontrarik esatea. Bi laguntzaileek azterzen ziharduten komertzio sexualaren mundua nondik nora doan aztertu beharko du Lisbethi laguntzeko...



Frantzia okupatu berri du Alemania; Shosanna Dreyfusen Parisera egin du ihes eta bizitza berria hasi nahi du. Aldo Raine tenienteak, berriz, soldadu judutarren talde berezia sortu berri du, hilketa azkarrak egiteko asmoarekin. Bat egingo dute biek Parisen...

Aipatutako hiru pelikuletatik aparte, "Vicky el vikingo" ere badago ikusgai

DENBORAPASAK

SUDOKUJA

5			1	6		
	2		8			4
			6	1	8	5
6		2				9
		1			8	4
	7	5		4		
7	1	6	8			
		4		2		9
2			7		5	
						8
						6

2	4	7	8	9	3	6	1	5
1	9	3	6	5	2	8	7	4
8	5	6	7	1	4	9	2	3
4	3	2	1	8	9	5	6	7
5	8	1	2	7	6	3	4	9
7	6	9	3	4	5	1	8	2
9	1	8	5	2	7	4	3	6
3	7	5	4	6	1	2	9	8
6	2	4	9	3	8	7	5	1

AURREKOAREN EMATZA

JAIOTAKOAK

- Naia López Larrea. 2009-IX-8.
- Danel Ogiza Gil. 2009-IX-20.
- Naroa Bengoetxea Rementería. 2009-IX-27.

HILDAKOAK

- Juan Carlos Martín Etxabe. 57 urte. 2009-IX-22.
- Jose Ramon Sampayo Fernández. 45 urte. 2009-IX-26.
- Antonia Alzerreka Olabe. 87 urte. 2009-IX-27.
- Pedro López Mazo. 84 urte. 2009-IX-29.

horoskopoa

ARIES

Eztarria hobeto zaindu beharko zenuke, azken aldian jende asko baitabil herrian gaixorik. Hala ere, sasoi onean zaude, oso osasuntsu..

TAURUS

Inork ez zaitu ulertzen. Zergatik ote? Ez zara behar den moduan azaltzen? Baliteke besteek ulertu nahi ez izatea, egiek min asko egiten dute-eta.

GEMINI

Zuk bakarrik egin ahal izango duzu hori, zure esku egongo da besteen zorianaren zatitxo bat. Erabaki egokia hartzen saiatu beharko zara.

CANCER

Zuretzat denak berdin jarraitzen duela badirudi ere, ez da horrela. Poliki gauzak aldatzen joango dira; hurrengo egunetan ohartuko zara.

LEO

Segi, segi horrela. Gehiegi konplikatu gabe gauzak ondo egin daitezkeela erakutsi duzu, beraz, bide onean zaudela konturatuko zara.

VIRGO

Eguzkitsu dagoenean alai eta euria dagoenean triste; metereologiaren araberrako umorea duzu. Euriarekin irribarre egiten ikasi beharko zenuke.

LIBRA

Milaka kontu izango dituzu buruan eta horiei irtenbidea ematen saiatu beharko zara. Ez duzu denbora askorik; hasi pentsatzen berehala.

SCORPIUS

Momentu baketsuak biziko dituzu, azken asteetako zalapartatik at. Arnasa sakon hartzeko unea izango duzu. Erlaxatzeko sasoi zuretzat.

SAGITTARIUS

Ez pentsa dena betirako izango denik. Gauzak etengabe aldatzen doaz, eta gaur txuria dena bihar beltza izan daiteke. Ondo egokitzea da gakoa.

CAPRICORNIUS

Pertsona bat faltan botako duzu eta nahiko triste egongo zara, baina inguruko laguntza jasoko duzu momentu oro. Ez estutu larregi.

AQUARIUS

Ez duzu jakingo noiz iritsiko den hainbeste denboran itxaron duzun momentu erabakigarri hori, baina ziur izan aste honetan izango dela. Prest?

PISCIS

Maila profesionalean sasoi ederra bizi duzu. Askorentzat erreferentia zara eta paper horretan gustura zaude. Dakizun guztia erakutsiko duzu.

Zapatua 3**SAGARDO EGUNA**

12.00-13.30 eta 18.00etatik aurrera.-

20 sagardotegitatik ekarritako sagardoa eta txorizo, gazta eta bakailao tortila pintxoak dastatzeko aukera, toleara, musika... Untzagan.

AGINAGAKO JAIK

17.00.- Briska txapelketa.
17.30.- Umeendako jolasak (puzgarriak, pelota partiduak, diskoteka eta txokolate-jana).
21.00.- Lagunarteko afaria.
23.00.- Suzko erroberak. Erromeria, Kupela taldearekin. Goizaldean, txokolate-jana. Aginagan.

Domeka 4**KILOMETROAK**

09.30.- Donostiara, Kilometroak-era joateko autobusa.

AGINAGAKO JAIK

11.00.- Meza nagusia, Goruntz abesbatzarekin.
11.45.- Zerutxu dantza taldearen emanaldia.
12.30.- Piskolabisa eta Gorritiren abereak
14.30.- Paella-jana herrikoia, trikitilariekin alaituta.
17.00.- Idi-probak.

BAZKARIA

14.30.- Usartzako erromeriara joaten zirenen bazkaria. Arrateko Krabelin jatetxean.

Martitzena 6**IKASTAROA**

08.30.- Kontabilitate Plan Orokor berriari buruzko kurtsoa. Debegesan.

Eguaztena 7**AURKEZPENA**

12.00.- JAZ Zubiaurreren 'Eskuila metalikoen hiztegi teknikoaren aurkezpena. Portalean (areto nagusian).

BILERA INFORMATIBOA

19.30.- Gazte Baserritarren Martxaren inguruko informazioa zabaltzeko bilera irekia. Arrate Kultur Elkartearen.

Eguena 8**IKASTAROA**

08.30.- Kontabilitate Plan Orokor berriari buruzko kurtsoa. Debegesan.

**laster salgai****DANTZA:**

'Lodrikoko'. Urriak 10, 17.00etan eta 18.00etan.

ANTZERKIA:

'Ahuntza edo nor da Silvia?'. Urriak 16, 20.30etan.

JAZZ:

Miguel Salvador Project. Urriak 23, 20.30etan.

MUSIKA:

Om drásek Czek Children Choir. Urriak 26, 20.30etan.

Peiyang Chorus. Urriak 29, 20.30etan.

Coro Infantil San Cugat. Urriak 30, 20.30etan.

Mixed Chamber Choir Krog. Azaroak 1, 20.30etan.

bekak

VIII. JUAN SAN MARTIN BEKA. Ikerketa esparrua: Artea. Urriaren 11ra arte, Pegoran edo Portalean.

diru-laguntzak**UMEAK ESKOLARA**

2009. Onuradunak: Eibarko erroldan dauden 1994ko urtarrilaren 1etik 2003ko abenduaren 31ra bitartean jaioetako umeak. Zenbatekoa: Gehien jota 60'10 euro. Abenduaren 1era arte. Pegoran.

DIRU-LAGUNTZAK IKASLEEI.

Onuradunak: Irakaskuntza arautuko edo lanbide prestakuntzako ikasleei zuzenduta (1984ko urtarrilaren 1etik 1993ko abenduaren 31ra bitartean jaioetakoak). Zenbatekoa: Gehien jota 60'10 euro. Abenduaren 1era arte. Pegoran.



erakusketak

- **Irailaren 30era arte**
ANGEL BOLUNBURUren argazki erakusketa.
Klub Deportiboan.
JOSE ANTONIO GONZALO HERNANDEZen argazki erakusketa. *Portalea tabernan.*
MIKEL OROZKOren argazki erakusketa.
El Ambigú tabernan.
- **Urriaren 4ra arte**
MARIA TERESA UNZUETAren margo erakusketa.
Topalekuan.
- **Urriaren 9ra arte**
EXPOADINTSU ARGAZKI LEHIAKETAko lanen erakusketa. *Untzaga jubilatutxean.*

ikastaroak

- **Esperientzia Eskola.**
Izen-ematea eta informazioa: Urriaren 23ra arte, nagusiak@debegesa.com helbidera idatzita edo 943820110 telefonora deituta.
- **Sorosle eta Sorospen ikastaroa.**
Noiz eta non: Urriaren 20tik aurrera, astelehenetik barixakura, 19.00etatik 21.00etara DYAko egoitzan (Pagaegi kalea, 5).
- **UEUko Udazkeneko ikastaroak.**
Izen-ematea eta informazioa: www.ueu.org helbidean edo 943821426 telefono zenbakian.
- **Berbetan.**
Izen-ematea eta informazioa: ...eta kitto! Elkartean (Urkizu, 11) edo 943200918 telefono zenbakian.
- **Itsas-patroi ikastaroa.**
Armeria Eskolan. Izen-ematea eta informazioa: Eguzki Jaia itsas akademia (www.eguzkijaia.com) edo 616175672 telefono zenbakian.
- **Argazkilaritza Digitala (hastapenak).**
Non eta noiz: Urriaren 19tik aurrera, astelehen eta eguaztenetan, 19.00etatik 21.30etara, Portalean. Izen-ematea: Urriaren 5etik 16ra, Pegoran.
- **Zoru pelbikoa indartzeko ikastaroa.**
Non eta noiz: Urriaren 26tik abenduaren 17ra arte, 15.00etatik 16.00etara, Ipuruako jubilatutxean. Izen-ematea: Urriaren 16ra arte. Pegoran.
- **Berdintasun harremanak.**
Non eta noiz: Azaroaren 2tik abenduaren 21era, astelehenetan, 18.00etatik 20.00etara, Andretxean. Izen-ematea: Urriaren 23ra arte. Pegoran.

farmaziak

- 2, barixakua**
EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
GAUEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
- 3, zapatua**
EGUNEZ **Larramendi** (Calbetón, 19)
GAUEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)
- 4, domeka**
EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
GAUEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)
- 5, astelehena**
EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
GAUEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
- 6, martitzena**
EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
GAUEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
- 7, eguaztana**
EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
GAUEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
- 8, eguena**
EGUNEZ **Urizar** (J. Etxeberria, 7)
GAUEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)
- 9, barixakua**
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
GAUEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)

lehiaketak

- **Indalezio Ojanguren XXII. Argazki Lehiaketa.**
Lanak aurkezteko epea: Urriaren 10era arte. Informazioa: Pegoran.
- **Asier Errasti Eibarko X. Laburmetraia Jaialdia.**
Lanak aurkezteko epea: Urriaren 9ra arte. Informazioa: Pegoran.
- **Sanandresak 2009 kartel lehiaketa.**
Lanak aurkezteko epea: Urriak 22ra arte. Informazioa: Pegoran.
- **San Andres bertso-paper lehiaketa.**
Izen-ematea eta informazioa: ...eta kitto! Euskara Elkartean (Urkizu, 11 solairuarte) edo 943200918 telefono zenbakian.

telefono jakingarriak

- SOS deiak112
- Pegora010
- Udaletxea943 70 84 00
- Portalea.....943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea943 70 07 99
- Debegesa.....943 82 01 10
- KIUB943 20 38 43
- Epaitegia943 03 34 00
- Iberdrola901 20 20 20
- Naturgas902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.943 46 46 22
- Gurutze Gorria..943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekoa.....943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza943 53 17 00
- Eusko Tren902 54 32 10
- Pesa902 10 12 10
- Taxiak.....943 20 30 71
-943 20 13 25
- Alkohol.Anon. ..629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen 650 26 59 63

autobus ordutegiak

- EIBAR-DONOSTIA.** Egutero: 07.30, 08.50, 10.30, 13.30, 14.50 eta 18.30. Laneguna: 07.00, 08.00, 15.30 eta 21.05. Jaieguna: 09.30, 13.30, 18.30 eta 20.30.
- DONOSTIA-EIBAR.** Egutero: 12.30, 15.00, 17.30, 19.30 eta 20.45. Laneguna: 07.00, 09.30, 13.30, 14.30 eta 18.30.
- EIBAR-BILBO.** Laneguna: 06.40etatik 20.40etara ordu. Zapatua eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu.
- BILBO-EIBAR.** Laneguna: 06.40etatik 21.40etara ordu. Zapatua eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu.
- EIBAR-GASTEIZ.** Egutero: 06.15, 10.45, 14.45 eta 18.45. Zapatua: 06.45, 10.45, 14.45 eta 18.45. Jaiegunak: 08.45, 10.45, 14.45, 16.45, 18.45 eta 20.45.
- GASTEIZ-EIBAR.** Egutero: 08.50, 12.50, 16.30 eta 20.30. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 16.30, 18.30 eta 20.30.
- EIBAR-IRUÑA.** Laneguna: 07.45 eta 13.30. Jaiegunak: 07.50 eta 18.00.
- IRUÑA-EIBAR.** Laneguna: 10.45 eta 18.00. Jaiegunak: 10.45 eta 21.00.
- EIBAR-ARRATE.** Zapatua: 14.00. Domeka eta jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00.
- ARRATE-EIBAR.** Zapatua: 14.30. Domeka eta jaiegunak: 09.30, 10.30, 11.30, 13.30 eta 18.30.
- EIBAR-ELGETA.** Laneguna: 13.30 eta 20.20. Domeka eta jaiegunak: 12.00 eta 19.00.
- ELGETA-EIBAR.** Laneguna: 14.00 eta 20.50. Domeka eta jaiegunak: 12.50 eta 19.30.
- ERMUA-MENDARO.** Astelehenetik ostiralera: 06.20, 07.10, 07.50 (07.50etatik 22.20etara orduerdire). Zapatua-Domeka-Jaiegunak: 06.50etik 21.50-era ordu. **MENDARO-ERMUA.** Laneguna: 06.55etatik 21.55etara orduerdire. Zapatua-Domeka-Jaiegunak: 07.55etik 21.55-era ordu.

tren ordutegiak

- EIBAR-BILBO.** Lanegunak: 06.13etatik 21.13etara ordu. + 10.35 eta 21.38.
- BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 05.57etatik 20.57etara ordu. + 09.34 eta 20.54.
- EIBAR-DURANGO.** Egutero: + 22.18.
- EIBAR-DONOSTIA.** Lanegunak: 06.13etatik 20.13etara ordu. + 10.35 eta 21.38.
- DONOSTIA-EIBAR-ERMUA.** Lanegunak: 05.47etatik 20.47etara ordu.

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

– Amañako W. Orbean pisua salgai. 3 logela, sukalde-jangela eta komuna. Bal-koi bi. Eguzkitsua. 28.500.000 pta. Tel. 943-120254.

1.2. Errentan

– Bikote arduratsua Donostian pisua hartuko luke alokairuan. Tel. 616-813097.
– Eibarren edo inguruan borda, txabola edo baserria alokatu edo erosiko nuke. Tel. 670-272714. Jon.
– Eibarren pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 628-789789.
– Emakume batek Eibarren edo Ermuan pisua hartuko luke alokairuan. Altzaririk gabe. Tel. 616-746257.
– Eibarren edo inguruan pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 616-207343.

1.3. Konpartitzeko

– Gela alokagai Legarren, zentrorik gertu, etxean bi izateko. Kafefakzioa eta wi-fi. Tel. 620-633434.

1.4. Etxe-trukaketa

– Elgoibarko Babes Ofizialeko pisua (Toletxegaineko geltoki parean) Eibarko beste batengatik aldatuko nuke. 70 m². Logela bi, egongela, sukaldea, komuna eta trasteroa. Garajea. Tel. 659-381317.

2. Motorra

2.1. Salgai

– Opel Astra salgai. 56.000 km. 14 urte. 4.000 euro. Tel. 626-933850.
– Mercedes Sprinter furgoneta-etxea salgai. 4 lagunendako. Sukaldea, komuna, ohe bi, dutxa eta hozkailua. Berrita. 40.000 euro. Tel. 656-768944.

3. Lokalak

3.1. Salgai

– Janaridenda lagatzen da erabilerarako. Tel. 649-744187.
– Txomon garaje itxia salgai. 45.000 euro. Tel. 644-403759.

3.2. Alokagai

– Urtzailen lokala alokagai (sotanoa). 66'80 m². Tel. 943-208555.

4. Lana

4.1. Lan bila

– Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko. Tel. 617-844142.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen eta autoen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak, garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. Autoak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

– Emakume euskalduna eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta etxeko lanetarako. Tel. 699-221092.
– Neska eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 626-018538.
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko arratsalde eta gauetz. Tel. 671-972733.
– Emakume arduratsua eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketara lanetarako. Tel. 608-474923 edo 943-171583.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 639-962219.
– Gizona eskaintzen da garbiketara lanetarako eta nagusiak zaintzeko. Tel. 656-493864.
– Gizona eskaintzen da obretan jarduteko (edozein lan). Tel. 671-358513.
– Neska eskaintzen da pertsonak zaintzeko. Interna. Tel. 697-381673.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna edo externa. Tel. 671-742142.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 638-711269.
– Neska eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 636-383471.
– Emakumea eskaintzen da orduka umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketara lanetarako. Tel. 669-966611 edo 664-881835.
– Emakume arduratsua eskaintzen da egunez edo gauetz nagusiak ospitalean zaintzeko eta garbiketara lanetarako. Erreferentziak. Tel. 660-073781.
– Emakumea eskaintzen da arratsalde, gauetz eta asteburuetan nagusiak zaintzeko. Tel. 678-173847.
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketara lanetarako. Tel. 638-938307.
– Gizona eskaintzen da igeltsero edo soldadore moduan eta garbiketara lanak egiteko. Tel. 616-809926.
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketara lanetarako. Tel. 662-423898.
– Neska arduratsua eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketara lanetarako. Esperientzia. Tel. 648-603029.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna edo externa. Tel. 677-860971.
– Neska eskaintzen da arratsalde umeak edo nagusiak zaindu eta etxeko lanetarako. Tel. 670-957709.
– Neska eskaintzen da umeak zaindu, kamarera moduan edo garbiketara lanetarako. Tel. 657-142376.

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

– Gizona eskaintzen da elektrizitate konponketak egiteko. Tel. 652-779800.
– Neska eskaintzen da 09.00etatik 12.30etara etxeko lanetarako. Tel. 943-751950 edo 650-113213.
– Neska eskaintzen da 08.30etatik 12.30etara etxeko lanetarako. Tel. 659-126852.
– Emakumea eskaintzen da 14.00etatik 18.00etara garbiketara lanetarako. Tel. 634-256471. Yamaira.
– Emakumea eskaintzen da arratsalde umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketara lanetarako. Tel. 648-192683.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketara lanetarako. Gauak barne. Tel. 610-632782.
– Neska eskaintzen da arratsaldetan eta asteburuetan umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 646-821678.
– Emakumea eskaintzen da umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 638-482478. Lorena.
– Mutila eskaintzen da asteburuetan kamarero lanetarako. Tel. 658-719676.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketara lanetarako. Tel. 638-908730.
– Mutila eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 667-323138.
– Mutila eskaintzen da sukaldari edo laguntzaile moduan eta nagusiak zaintzen lan egiteko. Tel. 638-344377 edo 943-530795.
– Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 630-531469.
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 651-836353.
– Emakume arduratsua eskaintzen da arratsalde umeak zaindu eta etxeko lanetarako. Esperientzia. Tel. 646-048823.
– Emakume euskalduna eskaintzen da etxeak edo bulegoak garbitzeko. Tel. 687-114707.

4.2. Langile bila

– Elgoibarko Izarra elkarteak euskera teknikaria behar du. Tel. 943-741746. Amaia.
– Laguntzailea behar da Ermuko hortz-klinika baterako. 18.30etatik aurrera. Tel. 615-724810.
– Emakume euskalduna behar da gosari, bazkari eta afalorduetan laguntzeko. Tel. 626-933850.
– Emakume euskalduna behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel. 652-743249.
– ...eta kitto! astekariak banatzaileak behar ditu. Tel. 943-200918.

5. Irakaskuntza

5.1. Eskaerak

– EGA prestatzeko irakasle partikularren bila nabil. Tel. 943-821353. Esther.
– DBHko klase partikularrek emateko pertsona behar da. Tel. 652-700114.

5.2. Eskaintzak

– Euskarazko klase partikularrek ematen ditut, EGA eta perfilak prestatzeko. Tel. 620-608065.
– Neska euskaldunak klase partikularrek emango lituzke. Tel. 617-844142.
– Lizentziatuak Informatikako eta DBH-rainoko klaseak emango lituzke. Larunbatetan ere bai. Tel. 659-651010.
– LH eta DBHko klase partikularrek ematen dira. Euskaraz. Tel. 650-871887.

6. Denetarik

6.1. Salgai

– Sukalde italiar bi salgai. Estreinatu ga-beak. %50eko deskontua. Tel. 656-756485 edo 656-723437.
– Erroberadun aukia erosiko nuke. Tel. 685-768857. Aurora.
– Bebe-car kapazoa eta silla salgai. Tel. 616-801304.
– Egongelarako altzariak salgai. la berririak. Prezio onean. Tel. 943-120308.

6.3. Galdu/Aurkitu

– Irailaren 26an (zapatua) botoidun jertse beltza galdu nuen Bidebarrietan, San Andres eskolaren parean. Tel. 687-472084. Ane.
– Irailaren 11n konpromisoko aliantza galdu zen Bidebarrietan. Familia orogarrira. Sarituko da. Tel. 630-876184.
– Irailaren 18ko arratsaldean lehen jaunartzeko gurutzetun katea galdu zen, Manterola eta Trinketeren artean. Sentimenduzko balorea. Tel. 943-031681.

GALDERA: Zein da nire telefonoarendako leku aproposena?
ERANTZUNA: ...eta kitto!ren Gida Komertziala, jakina!
-943 20 67 76-

**Klase teoriko
zein praktikoak**
norberak nahi
dituenean

Klase teorikoak
**ikusentzunezkoen
abantailak**
erabilita

Merkantziak
eta bidaiariak
garraiatzeko
nazioarteko
agentzia **ziurtagiriak**
lortzeko ikastaroak

**GIDATZEKO
KARNET
GUZTIAK**


SOLOZABAL
autoeskolak

**Estaziño kalea, 8
Tel. 943 70 23 78**

BERRIA: T. Etxebarria, 7 Tel. 943 70 23 84



ZERBITZUA



ADMINISTRAZIOA



BILERAK



GESTIOA

EUKI

T. Etxebarria, 1 - behea Tel. 943 20 42 99

KOMUNITATEAK